

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko
irakasleen, administrazio eta zerbitzuetaiko langileen eta
ikasleen partaidetza eta entzute txostena indarkeria
matxistei aurre egiteko protokoloa lantzeko**

2017ko urria/ 2018ko urtarrila



Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen, administrazio eta zerbitzuetaiko langileen eta ikasleen partaidetza eta entzute txostena indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloa lantzeko

2017ko urria/ 2018ko urtarrila

Proiektua: Indarkeria matxistei aurre egiteko UPV/EHUren protokoloa

Erakunde sustatzailea: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Berdintasunerako Zuzendaritza

Idazleak:

Bañuelos Ganuza, Aitziber Dosil

Santamaria, Maria

Estebanez, Ianire

Garate Sacristán, Blanca



Aurkibidea

1. Sarrera	6. or.
2. Metodologia	14. or.
1.1. Dinamiken deskribapena eta ondorio nagusiak	15. or.
1.2. Informazio bilketa	18. or.
3. Datu interesgarriak	18. or.
3.1. Entzute eta parte hartze saioak	18. or.
3.2. Parte hartzaileak	19. or.
3.3. Campusaren arabera parte hartzea	20. or.
3.4. Nola iristen da informazioa partaidetza saioetara	22. or.
Txostena	
4. 1. dinamika: Zer sentitzen duzu gizarteko arazo horren aurrean?	25. or.
5. 2. dinamika: Zer dakizu indarkeria matxistei buruz?	26. or.
6. 3. dinamika: Zer egingo zenuke egoera horietan?	27. or.
6.1. Nola erantzun zenuke proposaturiko egoeren aurrean? Lehenengo hurbilketa bat	28. or.
6.2. Aurkitutako erantzun motak	28. or.
6.2.1. Ez dut indarkeria gisa identifikatzen / Ez nintzateke jabetuko	28. or.
6.2.2. Ez nuke jakingo nola jokatu	29. or.
6.2.3. Zerbait egingo nuke	29. or.
6.2.4. Familiarengana eta lagunengana joko nuke	32. or.
6.2.5. Ikasleengana joko nuke	33. or.
6.2.6. Unibertsitateera joko nuke	34. or.
6.2.7. Gizarte salaketa	36. or.
6.2.8. Salaketa judiziala – polizia salaketa	36. or.
6.3. Erantzun ehunekoa eta erantzunen arteko desberdintasunak ikasleen kasuan	37. or.
6.4. Erantzun ehunekoa eta erantzunen arteko desberdintasunak ikasleen eta profesionalen kasuan	40. or.
7. 4. dinamika: Zer egin beharko luke, zure ustez, unibertsitateak?	42. or.
7.1. Unibertsitatea erakunde gisa	42. or.
7.2. Informazioa, egiazko datuak eta gardentasuna	43. or.
7.3. Berdintasunerako Zuzendaritza: berdintasun batzordeak ikastegi guztietan	44. or.
7.4. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko proposamenak	45. or.
7.5. Indarkeria matxisten aurkako protokoloa	48. or.
7.5.1.- Sentsibilizazioa eta prebentzioa	50. or.
7.5.2.- Prestakuntza / kontzientziakzioa	52. or.
7.5.3.- Pertsonen arreta	53. or.
7.5.4.- Protokoloan txertatzeko proposaturiko zerbitzuak	54. or.
7.5.5.- Giza baliabideak: erreferentziak pertsonak	56. or.
7.5.6.- Komunitate ikuspegia	57. or.
7.5.7.- Gizarte salaketa	57. or.
7.6. Hedapena	58. or.
8. Ondorioak eta proposamenak	60. or.
I. ERANSKINA: Lantaldeen irakas materiala	
II. ERANSKINA: 3. dinamikaren transkribapena	
III. ERANSKINA: 4. dinamikaren transkribapena	
IV. ERANSKINA: Lantaldeen fitxa teknikoa	

1. Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Berdintasunerako Zuzendaritza indarkeria matxisten aurkako protokolo berria lantzen ari da, eta esku artean duzun txostena hura sustatzeko gauzatzen ari den prozesuaren esparruan biltzen da.

Txostena bi hilabeteko lanaren emaitza da. Denbora tarte horretan Euskal Herriko Unibertsitateko campus guztietako 18 lantalde bildu dira, 290 pertsona guztira, (AZPko langileak, irakasle-ikertzaileak eta ikasleak). Lantaldeen helburua indarkeria matxistak bezalako itzal handiko gai baten inguruan ikasleen, AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen premiei eta proposamenei buruzko informazioa biltzea izan da.

UPV/EHU osatzen duten pertsona guztien aukera eta tratu berdintasuna gure erakundearen Plan Estrategikoan jasotako funtsezko balioa eta bikaintasuneko irizpidea da, eta honela dio gure misioak: "Gizartearekin konprometitutako instituzio gisa duen erantzukizuna bere gain hartzea, kokatuta dagoen komunitateko bizi baldintzak, inklusio maila eta kohesio soziala hobetzen eta bere eraginpeko lurraldearen garapen ekonomiko jasangarria lortzen lagunduz, EAEko gizarte, kultura eta ingurumen erronkei soluzioak bilatzen modu aktiboan parte hartuta". (UPV/EHUren Plan Estrategikoa, 2012-17, 6-23. or.)

Eta, jarraian, honako hau jasotzen du, zehazkiago, ikuskerak: "Lidergo intelektualaren eta gizarte erantzukizunaren bokazioarekin garatuko ditu emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzera eta desberdintasun sozial eta kulturalak murriztera bideratutako neurriak, giza eskubideentzako zuzentasun, jasangarritasun eta errespetu handiagoko klabeen gizartearen aurrerapena ahalbidetuko dutenak."

Horregatik da lehentasunezkoa unibertsitatearen testuinguruan emakumeen eta gizonen artean antzematen diren eta gure gizartean erro sakonak dituzten desberdintasuna eta diskriminazioa areagotzen duten faktore guztiak zorrotz aztertzea.

Aurkeztera gatozen dokumentu honek adierazi dugun Plan Estrategikoan proposaturiko ekintza konkretuei erantzutea du helburu:

“II. ardatza: IKERKETA:

13. Ikerketa ildoak sustatzea euskal gizartean dauden desberdintasun egoerei aurre egiteko, erakundeekin nahiz gizarte eragileekin lankidetzan.

IV. ardatza: GOBERNANTZA ETA KUDEAKETA:

Unibertsitate komunitatearen kohesio handiagoa sustatuko du. Xede horietarako, UPV/EHUk kontuan izango ditu honako printzipio hauek: aukera berdintasunarena, aniztasunaren eta diferentziaren errespetuarena, genero ikuspegi txertatzearena, ekintza positiboarena, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzearena, eta ordezkaritza orekatuarena.

V. ardatza. KONPROMISO SOZIALA:

5. Unibertsitateko jarduera guztietan aniztasunarekiko arreta sustatzea, inklusioa erraztuz eta bereizketak ematen duen aberastasuna onartuz.
6. Jasangarritasunerako, berdintasunerako eta garapenerako hezkuntza sustatzea unibertsitate curriculumean txertatuz prestakuntza eta ikerketa alderdietan.
9. Genero ikuspegi integratua sustatzea unibertsitateko jarduera guztietan eta haien proiektio sozialean, Unibertsitatearen bikaintasunaren beste irizpide bat balitz bezala txertatuz.

Paraleloan, lan hau bat dator Euskal Herriko Unibertsitatearen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren (2014-2017) helburu nagusiarekin: “Genero ikuspegi integratua unibertsitateko jarduera osoan txertatzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa benetan gauzatzeko eta diskriminazio jarrerak saihesteko politika aktiboak garatuz” (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana, 2017, 7. or.).

Dokumentu horren helburua da unibertsitateko testuinguruan gogoetarako elementuak eta ekintzarako ideiak ematea erakunde horrek tinko eta uste osoz aurre egin diezaion indarkeria matxisten arazoari. Horretaz gain, unibertsitatea bizitzaren iraunkortasuna eta pertsonen arteko berdintasuna funtsezko balio izango den helmuga baterantz zuzentzeko xedea du.

Horretarako, lantaldeen bitartez, unibertsitateko kideei parte hartzeko eta beraien iritzia azaltzeko aukera emango dieten espazioak sustatu dituzte, haien premiei erantzungo dien protokolo bat diseinatzeko. Funtsean parte hartzailea eta dinamikoa den metodologia baten bitartez, premiak, iritzia eta unibertsitatean bizitako indarkeria esperientziak bildu dira, baita haiei aurre egiteko proposamenak ere, betiere egoera bakoitzari pertsonen segurtasunetik, babesetik eta laguntzatik heltzeko. Horiek guztiak jaso ditugu hurrengo



orrietan.

Aurrera eramandako prozesuak parte hartu duten pertsonak eta etorkizuneko protokoloak artatu nahi dituenak jarri ditu erdigunean. Horregatik, lehentasuna izan da elkarriketarako espazio bakoitzak eta garaturiko dinamikek arazo horren aurrean pertsona bakoitza kokatzen den lekuari buruzko kontzientzia sortzeko helburua sustatzea.

Pertsonengan eragina izango duen eta unibertsitatea eraldatuko duen protokolo bat lantzeko ezinbestekoa da kontzientzia hartzea, eta hori pertsonak egin beharreko ariketa da. Kontzientzia¹ protokoloaren lehenengo lanketa fasetik sortzeaz ari gara; hau da, epe luzera funtzionatzen ez duten eta gizakiengan aldaketarik eragiten ez duten berehalako ekintzak sortzetik irismen luzeko gogoeta prozesuetara igarotzea, edo Peñaren² (2017) hitzetan: *"Procesos de reflexión acción de largo alcance entre personas que en permanente debate y diálogo buscan superar la situación alienante y deshumanizadora a partir de la liberación de los condicionamientos y factores históricos que impiden su desarrollo individual o colectivo"*.

Giza Eskubideen ikuspegia

Garaturiko parte hartze eta entzute prozesuak, eta horren ondoriozko txostenak, Giza Eskubideen ikuspegitik eginiko indarkeria matxisten azterketa bat dute oinarri, eta zehazkiago, emakumeen eskubideen ikuspegitik.

Oinarri eta helmuga gisa eduki behar da pertsonen eskubide guztiekiko errespetua; bai gizabanako gisa, bai gizartearen zati gisa dituzten eskubideak, alegia Erakunde guztiek erakutsi behar dute eskubide horiekiko konpromiso sendoa, beraien esku dauden bitarteko guztiak jarrita haiek bermatzeko.

Indarkeriarik gabe bizitzeko emakumeen eskubidea jasota dago nazioarteko hitzarmenetan; esaterako, Emakumearen aurkako Bazterkeria Modu guztiak Ezabatzeko Hitzarmenean (CEDAW), zehazkiago 12. eta 19. gomendio orokorren bitartez, eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Adierazpenean, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak egina (1993) eta 1. eta 2. artikuluan emakumeen aurkako indarkeriaren definizioa ematen duena: "Emakumeari kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten dion indarkeria ekintza oro, bai eta ekintza horiek jasango dituztela mehatxu egitea, behartzea edo askatasun gabetzea ere, bizitza publikoan zein pribatuan izan", eta honako hau eransten du: "indarkeria fisikoa, sexuala edo psikologikoa familian, (...) indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa komunitate mailan, (...); eta estatuak onarturiko indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, non gertatzen den gorabehera" (4. or.).

¹ Kontzientzia sortzea kultur ekintzako prozesu bat da eta horren bitartez emakumeek eta gizonek beren egoera soziokulturalaren errealtatea ikus dezakete, jasan behar dituzten mugez eta alienazioez harago joan daitezke, eta beren buruak sendotzen dituzte, beren etorkizun historikoaz jakitun diren eta hura elkarrekin sor dezaketen subjektu gisa (Freire, 1974).

² Peña Maldonado, A. (2017): *I Encuentro Nacional de Núcleos académicos del CESYC. La investigación militante desde lo social y cultural*. Universidad Bolivariana de Venezuela, Centro de estudios sociales y culturales.

Horretaz gain, aitortzen du "premiatzkoa dela emakumeei unibertsalki aplikatzea gizaki guztien berdintasun, segurtasun, askatasun, osotasun eta duintasun eskubideak eta printzipioak". (1. or.)

Emakumeen aurkako indarkeriak, eskubideen ikuspegitik, berekin dakar genero desberdintasuna indarkeria horren arrazoi eta erro gisa tratatzea, eta horrez gain, CEDAWen jasotako emakumeen eskubideak eta askatasunak babestea. Horregatik, erakunde guztiak, baita hezkuntza erakundeak ere, behartuta daude giza eskubideak sustatzera eta babestera, eta esku hartze guztiak irizpide hori aintzat hartuta diseinatu behar dira.

Azpmarratu beharra dago abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralko Neurriei buruzkoak, adierazitakoa. Lege horrek aurrekari bat ezarri zuen arlo juridikoan, agerian jarri baitzuen emakumeen aurkako indarkeria, eta erreferentziazko esparru bat eskaini baitzuen prebentziorako, laguntzarako eta babeserako, baita genero indarkeria jazartzeko ere, eta ikusi dugu, gainera, UPV/EHUko Plan Estrategikoaren eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren diskurtso ildo berari eusten diola. Esparru hori aintzat hartu beharra dago unibertsitaterako protokoloa lantzerakoan.

Garrantzitsutzat jotzen dugu azpmarratzea nola definitzen duen legeak bere jardunaren xedea ATARIKO TITULUKO, 1. artikuluan. Legearen xedea:

1. Lege honen xedea da indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere harremanen agerpen gisa.
2. Lege honen bidez babes neurri osoak ezarri dira, eta neurri horien helburua da halako indarkeria saihestu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktimei babesa ematea.
3. Lege honek aipatu genero indarkeriatzat ulertzen du indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere. Ondoren, legearen printzipio artezkariak datoz, arazoari arreta integrala eskaintzeko beharrezko neurriak ezartzeaz gain, arreta berezia jartzen dutena honako puntu hauetan: sentsibilizazio neurriak indartzea, biktima diren emakumeen eskubideak babestea, erakundeen eta zerbitzuen arteko koordinazioaren alde egitea, gizarte zibiletik elkarteen eta erakundeen parte hartzea bultzatzea, eta arlo horretan lan egiten duten profesionalen espezializazioa bermatzea:

2. artikulua. Printzipio artezkariak. Lege honen bidez neurrien multzo osoa ezarri da, neurri horien helburua izanik hurrengo xedeak lortzea:

- a) Prebentzioaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko neurriak indartzea; horretarako botere publikoak tresna eragingarriekin hornituko dira, hezkuntzaren, gizarte zerbitzuen, osasunaren, publizitatearen eta komunikabideen esparruan.
- b) Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak sendotzea, eskatzeko modukoak direnak Administrazio publikoetan; modu horretara ziurtatzen da ondore horietarako ezarritako zerbitzuetara jotzea, azkar, gardentasunez eta eragingarritasunez.
- c) Legearen helburuek ezarritako gutxienekoak bete arte, informazio, arreta, larrialdi, babes eta sendabide osorako gizarte zerbitzuak indartzea, bai eta sistema bat ezartzea, udalerri eta autonomia erkidego mailan aldeztu aurretik zeuden zerbitzuak eragingarritasun gehiagorekin koordinatzeko.
- d) Botere publikoen era guztietako baliabide eta tresnak koordinatzea, ziurtatzeko genero indarkeriazko egitateen prebentzioa eta, hala denean, egitate horien errudinei ezarri beharreko zehapen egokia.
- e) Gizarte zibilean genero indarkeriaren kontra jarduten duten entitate, elkarte eta organizazioen lankidetzak eta partaidetza sustatzea.
- f) Biktimen informazio, arreta eta babes prozesuan parte hartzen duten kolektibo profesionalen espezializazioa suspertzea.
- g) Neurrien zeharkakotasun printzipioa bermatzea, hori aplikatzean kontuan har daitezkeen genero indarkeriaren biktima diren emakume guztien beharrian eta eskakizun bereziak.

Eta, I. KAPITULUAN, honako hauek izendatzen ditu zehatz-mehatz: "Hezkuntza arloan: 4. artikulua.

1. Hezkuntza sistemaren printzipio eta balioak: 1. Espainiako hezkuntza sistemak bere xedeen artean izango du ikasleak hezteko, oinarritzeko eskubide eta askatasunak errespetatzeko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatzeko, bai eta tolerantzia eta askatasuna elkarbizitzaren printzipio demokratikoen arabera egikaritzeko ere. Era berean, Espainiako hezkuntza sistemak kalitate printzipioen artean izango ditu gizonen eta emakumeen arteko berdintasun osoa eragozten duten oztopoak ezabatzea eta gatazkak saihesteko nahiz gatazka horiek modu baketsuan konpontzeko heziketa. 7. Unibertsitateek esparru akademiko guztietan ezarri eta suspertuko dute genero berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren inguruko heziketa, irakaskuntza eta ikerketa, zeharkakotasunez."

Bestalde, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, bere zioen azalpenean dio sustatu nahi duen berdintasunak emakumeen eta gizonen aniztasuna errespetatzen duela, eta horien berezitasunak integratzen dituela, gaur egun



gizonen eredua ezarri eta orokortzeko zabaldu den joera zuzentze aldera.

Interesgarritzat jo dugu, halaber, Berdintasunerako politika publikoei buruzko II. TITULUKO I. KAPITULUAN, Printzipio orokorreari buruzkoan, 14. artikulua botere publikoen jardute irizpide orokorrak jasotzen dituela, eta horren barruan, hainbat irizpide ezartzen dituela; horien artean 5. eta 6. irizpideek genero indarkeria desagertzeko hartutako neurri berezi hauei egiten diete erreferentzia, eta bazterkeria anitza jasaten duten emakumeak aipatzen dituzte: "Lege honen helburuetarako, botere publikoen jardute irizpide orokorrak izango dira:

5. Genero indarkeria, familia indarkeria eta sexu jazarpen nahiz sexuan oinarritutako jazarpen era guztiak ezabatzeko behar diren neurriak hartzea.

6. Kontuan hartzea ahulezia berezia duten kolektiboetako emakumeen zailtasun zehatzak; emakume horien artean daude gutxiengoetara bildutako emakumeak, emakume emigranteak, haurrak, desgai diren emakumeak, adineko emakumeak, emakume alargunak eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeak. Orobat, botere publikoek ekintza positiboko neurriak hartu ahal izango dituzte emakume horiei begira".

Interseksionalitate ikuspegia

Lanaren ardatz gisa erabilitako bigarren ikuspegia teoria feministatik hartutako interseksionalitatearen ikuspegia da. Honako hau litzateke:

"Tresna analitiko bat, generoak beste nortasun batzuekin gurutzatzeko dituen moduak eta, orobat, gurutzatze horiek zapalkuntzako eta pribilegiozko esperientzia bakanak sortzen nola laguntzen duten aztertzeko, ulertzeko eta horiei erantzuteko. Azterketa interseksionalaren helburua nortasun anitzak eta bazterkeria mota ezberdinak azaleratzea da, baita nortasun konbinazioaren ondorioz gertatzen diren desabantailez hitz egitea ere, eta bilatzen du, bestalde, arrazismoak, patriarkatuak, klase zapalketak eta bestelako bazterkeria sistema batzuek sortutako desberdintasunek emakumeen posizio erlatiboak nola egituratzen dituzten ulertzea. Aintzat hartzen ditu testuinguru historikoak, sozialak eta politikoak, eta hainbat nortasun motaren konbinaziotik sortzen diren banako esperientzia indibidualak aitortzen ditu. Azterketa interseksionalak planteatzen duenaren arabera, nortasunen konbinazioa ez dugu berezko karga areagotzen duen batuketa gisa ulertu behar, baizik eta bestelako esperientziak eragiten dituen batuketa gisa"³.

Interseksionalitateak zapalkuntza sistemen ikuspegi zabalagoa eskaintzen digu. Aukera ematen digu pertsonaren errealitate soziokulturala bere osotasunean ulertzeko. Haren

³ "Interseccionalidad una herramienta para la justicia de género y la justicia económica", Derechos de las mujeres y cambio económico 9, Asociación para los derechos de la Mujer y el Desarrollo, (2004, 1. or.)

balioak eta lehentasunak, harreman mundua eta komunitateak horretan guztian duen garrantzia. Hala, desberdintasuna barnean hartzen da eta positibotzat aitortzen da. Arreta pertsona bakoitzaren errealitatea osatzen duten eta hainbat bazterkeriaren xede bihurtzen duten faktore guztietan jartzen du. Berdintasunerantz eramango gaituen aldaketarako tresna bat da.

Hurrengo lerroetan ikusiko dugunez, lantaldeetan parte hartu duten pertsonen unibertsitateko testuinguruan gertatzen diren hainbat bazterkeria motaren gurutzatzeaz egin dute gogoeta. Adierazi dute indarkeria matxistak areagotu egiten direla hainbat ahulezia egoera direla eta, ez bakarrik pertsonen aniztasunak eragindakoak (kultur aniztasuna, aniztasun funtzionala edo sexu eta genero aniztasuna), baizik eta egitura bertikal bat duen unibertsitate batean diren rol eta estatus desberdinen ondoriozkoak, egitura horrek pertsona bakoitzak betetzen duen rolaren arabera ezartzen baitu botere harremana (irakaslea/ikaslea, dekanotza/zuzendaritza/irakaslea, beka-dunak/irakaslea, eta abar). Parte hartzaileek bazterkerien arteko harremanak aztertu dituzte, baita bakoitza besteengandik bereiz hartuz gero haiek egoki artatzeko zailtasuna ere.

Feminismoa erreferentziazko esparru teoriko gisa

Ezinbestekoa da parte hartze prozesu osoa, diseinutik hasita, gidatu duen erreferentziazko esparru nagusia aipatzea: Feminismoa. Feminismo inklusibo bat, zeinak erreferentzia gisa emakumeen eskubideen aldeko borroka hartuta, pertsona guztiei beren aniztasunean eragiten dieten indarkeriak identifikatzen dituen.

Feminismoa gizarte justiziaren berme da. Berekin dakar pixkanakako aldaketa, ez bat-batekoa, aldaketa sakonak eragingo dituen besteekiko gure izateko, egoteko eta egiteko moduan. Aldaketak mikrotik mesora joan behar du, makrora iritsi arte. Hala gertatu behar du unibertsitatean.

Balio patriarkalek bi mutur baztertzailetan banatzen dituzte gizakiak: bata ez da bestea, eta alderantziz. Polarizazio horrek bi aukera baino ez dizkie eskaintzen pertsonen beren buruak pertsona gisa eraikitze: emakumeak ala gizonak izatea. Indarrez inposatzen du ordena hori, egiturazko eta sinboliko denaren indarraren bidez, eta aurrekoak funtzionatzen ez badu, zuzeneko indarkeriaren bidez. Antolatze sistema horrek hain errotuta du bere oinarri ideologikoa gure nortasun indibidual eta kolektiboetan, ezen funtsezkoa baita identifikatzea nola gauzatzen diren unibertsitatea, haren egitura eta haren barruko zein kanpoko harremanak ulertzeko moduan.

Feminismoak indarkeria matxisten ikuspegi zabala eskaintzen digu. Zer mailatan azaleratzen diren, haien tipologia eta haien agerpen anitzak identifikatzen ditu. Erantzukizunak zehaztu eta kokatu egiten ditu gizarte ekintzako, eta ekintza politiko eta ekonomikoko eragile desberdinen. Baina, batik bat, balioa ematen die pertsonen beren bizi proiektuen barruan, eta egiteko duten gaitasuna aitortzen die.



Unibertsitateak zer hezkuntza mota eskaintzen duen berrikusi behar da, eta hark bere gain hartu behar du ikasleekiko, herritarrekiko eta etorkizuneko profesionalekiko duen gizarte erantzukizuna, baita langileekiko duena ere, bermatu egin behar baitie alderdi profesionalean pertsona gisa garatzea ahalbidetuko dien espazio bat. Unibertsitateak sortzen dituen dinamika guzti-guztiak berrikusi behar ditu, bestela ez baita ez eraginkorra ez erabakitzailea izango indarkeria matxistei dagokienez, ezta pertsonen arteko berdintasunari eta gizarte justiziaren sustapenari dagokienez ere.

Johan Galtung-en⁴ gatazkaren teoria: Indarkeriaren triangelua

Azkenik, indarkeria motei buruzko Johan Galtungen triangelua erabili dugu indarkeria matxistak ulertzeak eta haiei modu egokian aurre egiteak lotuta duen zailtasuna ulertzeko. Galtungen arabera, indarkeria iceberg bat bezalakoa da; hala, zuzeneko indarkeria, ikus daitekeena, gatazkaren zati txiki bat baino ez da, eta horri eskaintzen diote baliabide eta esfortzu gehien erakundeek. Indarkeria matxistei aurre egiterakoan haien adierazpenetako bakar bati heltzea (zuzeneko indarkeria) ez da nahikoa, egiturazko indarkeriarekin eta indarkeria kulturalarekin duen harremana ulertu behar da.

Johan Galtung matematikari eta soziologoaren arabera, *zuzeneko indarkeriak* (ikusten dena) portaera jakin batzuk dakartza berekin, eta indarkeria emozional, psikologiko, fisiko, ekonomiko, sozial, sexual eta administratiboko ekintzei erantzuten die. *Egiturazko indarkeria* (ikusten ez dena) pertsonen oinarritzko premiak (biziraupena, ongizatea, nortasuna eta askatasuna) aseko direla bermatzen ez duten egitura multzoan zentratzen da eta gizarte estratifikazioko prozesuen emaitza da; eta *indarkeria kulturala* (ikusezina), indarkeria sinbolikoa da, eta hainbat bitartekoren bidez adierazten da (erlijioa, ideologia, hizkera, artea, zientzia, hedabideak, hezkuntza eta abar). Haren zeregina zuzeneko indarkeria eta egiturazkoa legitimatzea da, baita hura jasaten dutenen erantzuna oztopatzea edo geldiaraztea ere. *Zuzeneko indarkeriaren* arrazoiak egiturazko indarkeriako eta indarkeria kulturalako egoerekin daude lotuta: egoera asko zapal dutako talde batek jasan behar dituen botere abusu baten ondorio dira, edo gizarte desberdintasun baten ondorio (ekonomikoa, osasunekoa, arrazakoa, eta abar), eta indarkeria horiek justifikatzen dituzten diskurtsoen laguntza izaten dute.

Indarkeria matxisten ikuspegi poliedriko hori presente egon da lan saioetako parte hartzaileen gogoetetan eta ekarpenetan. Hala, protokoloak proposamen zehatzak izango ditu, unibertsitateko kideekin loturikoak, eta testuinguruaren aldaketa izango dute hizpide, prebentzioa, pertsonen arreta eta funtsezko prozesu guztietan jasotako laguntza izanik

⁴ Johan Galtung (Norvegia 1930) matematikari eta soziologoak Osloan sortu zuen bakeari buruzko lehenengo ikerketa zentroa (1959), *International Peace Research Institute* izenekoa. NBEren hainbat erakunderekin lankidetzan aritu da eta bost kontinenteetan egin du lan irakasle bisitari gisa. Bakeari buruzko Ikasketen irakasle da Hawaiiko unibertsitatean, *Transcend: A Peace and Development Network* sarearen zuzendari, eta Transcend Peace University unibertsitateko errektore. 40 gatazkatan baino gehiagotan aritu da bitartekari. Galtungek hainbat kontzeptu sortu ditu: horien artean ezagunenak bakearekin eta indarkeriarekin loturikoak dira: Indarkeriaren Triangelua eta Bake Negatiboa vs Bake Positiboa dira. 2004an sortutako NBE demokratiko baterako batzordeko kide da.

jorratuko ditugun gai nagusiak.

Txostenean irakurriko dugunez, parte hartu dutenentzat berebiziko garrantzia du unibertsitatearen zerbitzuak eta baliabideak martxan jartzerakoan balioak eta jarrerak berrikusteak, baita ematen den prestakuntzari eta hezkuntza komunitatearengan –eta haren eskubide eta ongizatean– eragina duen guztiari dagokionez ere.

2. Metodologia

Txosten hau egiteko erabilitako metodologia kualitatiboa izan da, batik bat. Informazio bilketa egin da; horretarako, 18 entzute eta parte hartze talde antolatu dira. Lantalde horietan partaideak izan dira haien gauzatzearen eta Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) indarkeria matxistei aurre egiteko idatziko den protokoloaren lanketaren protagonista.

Taldeen helburua Unibertsitateari –erakunde gisa eta hura osatzen duten pertsonen dagokionez– ere eragiten dion gizarte arazo horren aurrean nola jokatu galderari buruz bertako kideen gogoetak, iritziak eta ideiak jasotzea zen. Horretarako, hainbat saio antolatu genituen eta parte hartzeko gonbidapena luzatu genien, alde batetik, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako unibertsitate campusetako ikasleei eta, bestetik, administrazio eta zerbitzuetako langileei (AZPko langileak) eta irakasle-ikertzaileei (IRI).

Taldeek ez zuten gehieneko edo gutxieneko kide kopururik izan behar gauzatu ahal izateko, zailtasunak baitzeuden espero zitekeen partaidetzari buruz aurreikuspen zehatz bat egiteko. Saioetarako izen emateak jasotzeko helbide elektroniko bat eta izen emateko galdetegi bat sortu, eta Berdintasunerako Zuzendaritzak mezu elektroniko bat bidali zien arren UPV/EHUko pertsona guztiei, errealitateak esaten digu topaketetan parte hartu zutenen artean %% (e)k bakarrik eman zutela izena, eta beste %% ez galdetegian ez posta elektroniko bidez izena eman gabe etorri zirela. Badirudi informazioa jasotzeko bide nagusia irakasleak, fakultateko kideak edo Zuzendaritzari/Berdintasun Batzordeei loturiko pertsonak direla.

Parte hartze desorekatu baten aukeraren aurrean, parte hartze eta entzute saioak pertsona kopuru mugagabeak parte hartzeko moduan diseinatu ziren, zenbatekoak saioen garapenean eta informazio bilketan ondoriorik izan gabe. Gainera, planteaturiko jardueren gogoeta eta ideien sorrera sustatzea lortu nahi zuten lankidetzaren bidez. Horretaz gain, edukiak modu progresiboan garatu ziren protokoloa egiteko proiektuari ekarpen esanguratsuak egitea lortzeko. Ekimena abian jarri genuenean, bagenekien gaia zabala dela berez, baita ezezaguna ere.

Bigarrenik, dinamika horiek irekiak izan beharra zuten, eta unibertsitateko rolari, gaiarekin loturiko ibilbide pertsonalari eta indarkeria matxistei eta haiei aurre egiteko moduei buruzko jakintzei dagokionez elkarren artean desberdinak diren pertsonentzat lekua izan.

Topaketen diseinuari dagokionez, lau dinamika prestatu ziren, eta ondoren dinamizazio taldeak ebaluatu eta egokitu egin zituen garaturiko talde bakoitzaren ostean. Ikasleen saioan lau dinamikak lantzea erabaki zen, eta profesionalen saioetan, ordea, horietako hiru (2, 3 eta 4. dinamikak).

Lortutako emaitzei erreparatuta, balorazioa positiboa izan da. Balorazio hori egiteko bi aldagai erabili dira: erantzunen aniztasuna eta horien baliozkotasuna etorkizuneko protokoloan txertatzeari begira. Taldeen osakerari dagokionez, gutxieneko kopurua 3 pertsona izan ziren, eta 56 gehienekoa. Dinamikak arin garatu ziren, eta talde bakoitzari eta haien ezaugarriei egokitu zitzaizkien.

2.1. Dinamiken deskribapena eta ondorio nagusiak:



Saioetan erabilitako materiala

Aurkezpena:

Saioa aurkezteko izandako denboran ondorio batera iritsi ginen: ezjakintasuna dago unibertsitatearen egituren azpian dauden dinamikei buruz, bai maila sinbolikoan, bai indarkeria matxistek dituzten adierazpideei dagokienez. Ahalegin handiena eskatzen duena bi indarkeriak identifikatzen jakitea da. Hala, indarkeria zuzena da gehien ezagutzen dena, eta sinbolikoa identifikatzeko zailtasun handienak eragiten dituena. Taldeetako bakoitzean, lehengo eta bigarren dinamikari batzen zaien jarraian ikusiko ditugun lehenengo zati hau oso baliotsua da saioaren gainerako zatia behar bezala garatzeko. Izan ere, hurrengo bi dinamiketan (3. eta 4. dinamikak) jaso behar da prozesu honen xede den informazioa.

1. dinamika: Zer sentitzen duzu arazo honen aurrean?



Dinámica 1:
Se visualiza un video de denuncia de la violencia sexual en las universidades. El objetivo es conectar con la problemática desde la emoción siendo las violencias machistas una realidad que nos afecta a todas y a todos.



¿Qué sientes ante esta problemática social?

Saioetan erabilitako materiala

Ikasleekin egina. Lady Gagaren bideoa ikusi ostean, aukera ematen zaie esperientziak iradoki diena adierazteko, sentimendu bat, ideia bat, irudi bat edo beste zerbait izendatuta. Hori guztia besteekin parteka dezakete, edo idatziz jaso, nahi izanez gero.

Indarkeria matxisten errealitateak pertsona guztiok zeharkatzen gaitu. Guztiok konektatzen gaitu hainbat emozioekin, eta ezinbestekoa zen parte hartzaileak konexio horretaz jabetzea berez pertsona konkretuetatik urrun dagoen protokolo bat osatzeko ideiak eman aurretik.

Indarkeria "kasuen" atzean beren bizitzak berreraiki behar dituzten pertsonak daudela ulertuta bakarrik egin daiteke hurbileko protokolo baliagarri bat, arazo edo kasu jakin batzuk artatu ordez, pertsonak artatzeko balioko duena. Pertsonak beren konplexutasunekin eta aniztasunarekin. Begirada intersektzional batekin, artatu aurretik ulertu egingo duena, eta modu integralean artatuko duena, giza eskubideak eta emakumeenak zorrotz errespetatuta.

2. dinamika: Non kokatuko zenuke egoera hauetako bakoitza?

Unibertsitatearen ingurunean ematen diren indarkeria sinbolikozko, egiturazko indarkeriazko eta zuzeneko indarkeriazko 15 egoera aurkezten dira. Ariketaren ostean, guztien artean aztertzen dira horien zergatiak, loturak eta haiek nola identifikatu.

3. dinamika: Zer egingo zenuke zuk?

Identificando las violencias machistas



Dinámica 2

Consiste en clasificar casos concretos en la pirámide de Galtung según correspondan a su dimensión estructural, a la simbólica y a la directa.

Saioetan erabilitako materiala

Dinámica 3

Se reparten diferentes situaciones de violencia para identificar como se responde ante cada situación. Se recogen todas las respuestas sin necesidad de acuerdo o consenso. Como actuarían, donde acudirían...




¿Qué harías tú?

Saioetan erabilitako materiala

Eraso sexistak ez dira salatzen. Icebergaren punta baino ez dugu ikusten. Pertsonen indarkeriei erantzuteko dituzten zailtasunak ulertzea ezinbestekoa izan da protokoloa haien premietara hurbiltzeko, pertsonen segurtasuna bermatuko duten komunikazio kanalak eta ateak irekitzeko.



4. dinamika: Zer egin beharko luke, zure ustez, unibertsitateak?



Saioetan erabilitako materiala

Ikasleek eta profesionalek aurrera eraman beharreko ideia zehatzez hitz egin dute, baina, batik bat, pertsonen "nola" lagundu eta zer harreman mota bultzatu partekatu dute: entzutea, enpatia, solidaritatea eta feminismoa. Unibertsitateari hurbiltasuna eskatu diote, eta arreta pertsonengan jartzea.

2.2. Informazio bilketa:


3. eta 4. dinamiketan eginiko gogoeta, ideia eta proposamen guztiak idatziz jaso ziren, parte hartzaileen eskutik. Guzti-guztiak transkribatu dira eta kategoriaren edo gaiaren arabera taldekatu, III. ERANSKINEAN.

3. Datu interesgarriak

3.1. Entzute eta parte hartze saioak

Parte hartze prozesua 2017ko urrian eta azaroan egin zen. Urrian sei ikasle talde eta bi profesional talde (AZPko langileak eta irakasle-ikertzaileak) bildu ziren Bizkaiko Campusean. Azaroan lau ikasle talde eta AZPko langileen/IRIen bi talde bildu ziren Gipuzkoan. Baita bi ikasle talde eta AZPko langileen/IRIen bi talde ere Araban. Azken campus horretan bi ikasle talde bertan behera utzi ziren inor agertu ez zelako.


ENTZUTE ETA PARTE HARTZE TALDEAK



	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA
BERTAN BEHERA ■	0	0	2
EGINAK ■	8	6	4


3.2. Partehartzaileak

Guztira 290 pertsonak parte hartu dute 18 lan saioetan. Nabarmendu beharreko datua da % 82 emakumeak izan direla, eta % 12 gizonak. Gizonen presentziak eta parte hartzeak agerian jartzen du haien interes eta inplikazio falta indarkeria matxisten arazoan. Saioak mistoak izan dira, sexuari dagokionez.




Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, saioetan parte hartu zutenen % 78 ikasleak izan ziren, eta % 22 AZPko langileak eta irakasle-ikertzaileak.

KOLEKTIBOA





3.3. Campusaren arabera parte hartzea.

Bizkaiko Campusean izan zen parte hartze handiena, Gipuzkoan ondoren, eta azkenik, Araban. Ingeniaritza Fakultatean eta Farmazia Fakultatean ikasleentzat programaturiko bi saio utzi ziren bertan behera.




Honako grafiko hauetan –Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa– hiru campusetako parte hartzeari buruzko datu zehatzak bildu dira.







Bizkaiko campuseko parte hartzeari dagokionez, talderik handienez 35 pertsona izan ziren (AZPko langileen eta IRIen taldea), eta txikienez sei, Ingeniaritza Fakultatean. Guztira 142 pertsonak parte hartu zuten, eta hortaz, ikasle eta profesional gehienek parte hartu zuten campusa izan zen.



Hurrengo grafikoan ikusten denez, Gipuzkoako campusean nabarmendu behar den datua partaidetzaren % 58 entzute talde bakar batean kontzentratu zela da, Psikologia Fakultatean.



Arabako campusean antzeko zerbait gertatu zen, pertsonen % 58,33k Letren Fakultateko talde bakar batean parte hartu baitzuten.



3.4. Nola iristen da partaidetza eta entzute saioei buruzko informazioa:


Unibertsitateak erabili ohi dituen hedapenerako bideak baliozkoak diren aztertzeko, eta ikasleen eta profesionalen parte hartzea bultzatzeko komunikazio bide eraginkorrenak zeintzuk diren identifikatzeko, lantaldeetako bertaratuei galdetu zitzaien nola iritsi zitzaien informazioa. Erantzunen arabera bi errealitate oso desberdin bereiz daitezke.

Parte hartzaileen % 36k e-postaz jaso zuela esan zuen, eta horixe da unibertsitateak lehentasunez erabiltzen duen komunikazio bidea; aldiz, % 64k beste bide batzuetatik izan zuen taldeen berri. Horietatik % 59,5ek beste pertsona batzuen bidez (irakasleak, ordezkaria, Zuzendaritzako kidea, Berdintasun Batzordeak edo ikaskideak).

Datu hori garrantzitsua da honako arrazoi hauengatik:

- a) Pertsonetikiko komunikazio zuzena da prozesuan parte hartzeko komunikazio eta motibazio bide nagusia.
- b) Ikasleen % 80k beste pertsona batzuen bitartez jaso du informazioa eta saio guztietan adierazi dute e-posta ez dela beren informazio kanala.

Hurrengo grafikoetan ikus dezagunez, % 36k e-postaz jaso zuen informazioa. Nolanahi ere, datu hori kolektiboen arabera aztertuta, alde nagusi bat azpimarratu behar da, e-posta AZPko langileekin edo irakasle-ikertzaileekin harremanetan jartzeko bide egokia izan badaiteke ere, ikasleen % 20k bakarrik adierazi du hura erabili izana.



Ikasleek informazio falta adierazi dute ikasle gehiago ez bertaratzeko arrazoi nagusi gisa. Gainera, birritan esan dute e-posta ez dela ikasleekin harremanetan jartzeko modu egokia. Txostenaren irakurketa egiten denean gehiago sakonduko da alderdi horretan, ikasleentzat garrantzitsua baita indarkeria matxisten arazoari heltzeko.

Lan taldeen inguruan jasotako informazioa

Parte hartzen dute 290
Ertantzuten dute 237

emaila		36%
B. Zuzendaritza		17%
Irakasleak	Komunikazioa eta HEFA	18%
Delegatua	Letrak	9%
Klasekideak		9%
Zentruko zuz.		0.5%
Watsapp		4%
Berdin. Batzord	Arkitektura	6%
Kartela		0.5%

Txostena

4. 1. dinamika: Zer sentitzen duzu gizarteko arazo horren aurrean? (ikasleen saioetan egina)

Indarkeria matxistak egoeretara eta horien atzean dauden pertsonetara hurbilduz aztertzeraz zuzenduriko saio bat egin ahal izateko, lehenengo bi dinamiketan helburua gogoeta eta analisisa bultzatzea izan zen, betiere ikuspegi kritikoarekin eta unibertsitateko testuingurua aintzat hartuta.

Indarkeria matxistek pertsonen % 100ari eragiten diete. Haiei nola aurre egin aztertzen denean, ezinbestekoa da konturatzea asmoak eta errealitateak, batzuetan, ez dutela bat egiten. Ikusiko dugunez, gehien agertzen den emozioetako bat ezintasuna da, eta, hala ere, ondorengo dinamiketan "indarkeria egoera bat gertatuko balitzaizu, zeuk zer egingo zenuke" galdegitean, honako hau da lehenengo erantzuna: zerbait egingo nuke, ez nuke halakorik onartuko. Arrazoia eta emozioa konektatuta bakarrik uler dezakegu zer gertatzen zaigun pertsonoi indarkeria jasaten dugunean, eta zer nolako zaila den erantzun "ahaldundu" bat ematea. Indarkeriak hainbat modutako eraginak izaten ditu, eta pertsona bakoitzak ahal duen bezala erreakzionatzen du. Beldurra, lotsa eta errua dira nagusi. Emozio horiek guztiek blokeoa eragiten dute ekintza baino gehiago.

1. dinamikaren helburua pertsonen sentimenduetara hurbiltzea zen. Horretarako, pertsonak erdigunean jarri ziren eta arazoari ez zitzaion arrazionalki heldu, ekuazio bat bailitzan. Elkarriketarako unea indarkeria matxistek, eta zehazkiago, sexu indarkeriak, eragiten dituen sentipenekin, emozioekin eta pentsamenduekin ireki zen. Horretarako, Lady Gagaren *Til it happens to you* bideoa proiektatu zen. Bideo horretan unibertsitateetan gerta daitekeen bortxaketa gisa aurkezten da sexu indarkeria. Bideoa ikusi ostean aukera eman zitzairen parte hartzaileei beren esperientzia emozionala hitzetan jartzeko, bai ahoz, bai idatziz, eta taldearekin partekatzeko.

Pertsona batzuek ez zekiten sentitzen zutena hitzez nola adierazi, beste batzuek ez zuten erantzuten norbaitek emozioen bat adierazi arte, beste batzuk isilik geratzen ziren, eta gehienek ez zuten besteen aurrean hitz egin nahi.

Bideoa ikustean sentitu zutena adieraztera animatu ziren pertsonak emozioak pil-pilean zituztela hitz egiten zuten. Lehenengo saioen ostean, emozioak beste pertsona batzuen aurrean azaltzea oso zaila izan zitekeela jabetuta, bideoa ikusita burutik pasa zitzaiena idatziz jasotzea planteatu genuen. Adierazteko modu horrekin errazago azaldu zuten zer emozio eragin zizkien bideoak, eta hala, zenbait pertsonak ahoz adierazi zituzten beren sentimenduak.

Idatzizko ideia horiek jaso ostean, emozioak izendatzeko gehien erabilitako hitzak zerrendatu ziren egiazko indarkeria egoerei buruz pentsatzean zer emozio mota azaleratzen



Hala, esan genezake **ezintasuna** edo inpotentzia dela idatziz jasotako erantzunen % 23,50ean agertzen den hitza, ondoren **amorrua** (% 15,13), **pena** edo tristura (% 11,15), **nazka** (% 6,77), beldurra (% 3,98), ulertezintasuna (% 3,18), haserrea (% 3,18) eta frustrazioa (% 2,78). Ehuneko txikiagotan aurkitu dira honako hitz hauek: mina, errealitatea, indarra, zigorgabetasuna, estutasuna, bidegabekeria, itxaropena, bateratzea, antsietatea, borroka, babesia, sororitatea, kontzientziazioa, gorrotoa, bakardadea, etsipena, lotsa, autobabesa, zaurgarritasuna, ulerkortasuna, segurtasunik eza, agonia, depresioa, ezinegona edo sumindura.



Hitz sorta horrek emozio edo sentrazio jakin batzuek besteekiko duten gailentasuna erakusten du. Hala, ezintasunarekin (saio guztietan gehien atera den hitza) loturiko emozioak, ulertezintasunarekin eta frustrazioarekin batera, asko agertu dira, eta horrek aditzera ematen digu indarkeriazko egoeren aurrean, esaterako bortxaketa baten aurrean, gerta litekeela ikasleek ezintasuna sentitzea eta ez jakitea zer egin, edo ez ulertzea eta ez jakitea nola jokatu.

Bestalde, amorrúa, tristura, nazka edo beldurra bezalako sentimenduak baino gehiago agertu da. Nolabait, esan genezake **amorrú sentimendu handia** eta **zer egin ez jakitearen** edo **ezer egin ezin izatearen sentipena** ikasleen ohiko erantzuna izan daitekeela halako indarkeria egoeren aurrean.

Dinamika gisa, bideo hori ikustek aukera eman zien parte hartzaileei halako indarkeria, indarkeria zuzena, geure gorputzean jasatea zer gogorra izan daitekeen sentitzeko. Baina aukera eman zigun, halaber, indarkeria modu guztiak intentsitate berarekin bizi ez direla eztabaidatzeko eta bizi ditzakegun errealitateen sorta askoz ere zabalagoa dela ikusteko.

5. 2. dinamika: Zer dakizu indarkeria matxistei buruz?

Bigarren dinamikan, metodologiaren atalean esan bezala, indarkeriazko 15 egoera aurkeztu ziren, eta parte hartzaileek haien dimentsio sinbolikoa, egiturazkoa edo zuzena identifikatu behar zuten.

Ez da saiuetan emandako erantzunen bilketarik egin dinamika honetan, helburua indarkeriak aztertzen hastea baitzen, eta indarkeria moduak kontzeptualizatzeko

zailtasunei buruz eztabaidatzea, hurrengo dinamiketan egin zen informazio bilketari ekin aurretik.

Aurrekoa gorabehera, azpimarratu dezakegu saio gehienetan aurkitutako zailtasunak, batik bat, indarkeria sinbolikoei eta egiturazkoei buruzko egoerak bereiztearekin zeudela lotuta. Zuzeneko indarkeria, aldiz, erraz identifikatu zuten.

Illo horretatik, zenbait saiotan entzun izan da indarkeria modu guztiak elkarren artean lotuta daudela eta atzera elikatzen direla. Aztertu zen nola, adierazitako kasuetako bakoitzean eta fokua non jartzen dugun arabera, egiturazko dimentsioaren, sinbolikoaren edo zuzenaren arteko harremanak identifikatuko ditugun.

Esan beharra dago parte hartzaileek zailtasun handiagoak izan zituztela indarkeria sinbolikoak egiturazkoetatik bereizten. Irakasleekin eta administrazioko langileekin eginiko lehenengo bi saioetan dinamika hau 15 adibideak erabili gabe planteatu zen. Galtungen piramidea aurrean zutela, profesionalei eskatu zitzairen unibertsitatean gerta daitezkeen zuzeneko indarkeriako, indarkeria sinbolikoko eta egiturazko indarkeriako adibideak eman zitzatela. Hala, parte hartzaileek gizonen eta emakumeen ordezkari buruzko adibideak eman zituzten, baita hizkera sexistari, garbitzaileen uniformearen sinbolismoari, emakumezko egileen izenen ikusgarritasun faltari, erabaki guneeetan emakumeak gutxiago entzuteari, eta dauden berdintasun gabezien gaineko kontzientzia faltari buruzkoak ere. Azken batean, indarkeria sinboliko eta egiturazkoarekin loturiko adibideak, baina ez zuzeneko indarkeriarenak.

Zuzeneko indarkeria egoerak identifikatzeko edo hitzez adierazteko zailtasun horren ostean, AZP/IRIei zuzenduriko hurrengo saioetan gainerakoetan erabilitako 15 egoeretatik abiatuta planteatu zen dinamika.

Edonola ere, dinamika oso aukera ona izan zen parte hartzaileekin indarkeriaren dimentsioak eta egoerak aztertzen joateko, eta kontzeptuei izena jartzeko talde osoarekin eztabaidatzerakoan. Helburua indarkeriaren ikuspegi zabalago eta osatuago bat eskaintzea izan zen, horretarako egoeren azterketa baliatuta. Horrek taldeen lana erraztu zuen hurrengo dinamiketan, zalantza izpirik gabe.

6. 3. dinamika: Zer egingo zenuke egoera horietan?

Entzute saioak egin diren kolektiboetako batean ere lagin handirik ez dugula aintzat hartuta, jarraian aurkeztuko dugun erantzunen tipologia **ezin da hartu ikasle guztien edo gehienen erantzun adierazgarri** gisa, ezta irakasle-ikertzaileen edo AZPko langileen gehiengoaren erantzun adierazgarri gisa. Aurrekoa gorabehera, interesgarria da proposaturiko indarkeria adibideen aurrean izandako erantzun motak aztertzea, parte hartzaileek honako hauen aurrean zer uste dituzten jakiteko: nola iruditzen zaie erantzungo edo erreakzionatuko luketela indarkeriaren aurrean, zer zailtasun eta laguntza dituzte, zer

rol bete dezakete unibertsitateak eta bere zerbitzuek erantzun horiek babestu eta laguntzeko.

6.1. Nola erantzungo zenuke proposaturiko egoeren aurrean? Lehenengo hurbilketa bat

Indarkeriaren aurrean nola erantzuten den adieraztea, lehenik eta behin, uste bat da. Uste hori pertsona batek izan dituen aurreko esperientzietan oinarrituta egon daiteke, halako egoera bat bizi izan denean, eta antzera edo beste modu batera erantzungo dela uste denean, edo gerta liteke ez eduki izana halako esperientziarik inoiz, eta kasu horretan pertsonak saia daitezke irudikatzen nola erantzungo luketen, edo beste pertsona batzuen erantzunetan oinarritu, edo halako egoerei buruz dituzten estrategien edo informazioen artean bilatu.

Hortaz, ezin dugu esan atal honetan jarriko ditugun erantzunak benetan direnik unibertsitateko kideek indarkeriaren aurrean erantzuten duten moduaren isla, baizik eta taldeko dinamikan parte hartu duten pertsonen, **aurkeztutako egoera konkretuen aurrean ustez erantzungo luketen moduari buruz** galde egitean, emandako erantzunak. Horretaz gain, taldeko erantzuna denez, ezin da zenbatu erantzun duten pertsonen kopurua, edo zenbat aldiz erantzun duen pertsona bakoitzak, eta hortaz, jarraian islatu ditugun ehunekoak bildutako erantzunen artean gehien aurkitu diren motak aintzat hartuta egin dira. Erantzunak 8 kategoriatan edo motatan sailkatu ostean, bildutako erantzunak taldekatu egin dira eta mota jakin bakoitzeko erantzunen guztizkoa kalkulatu da, saioetan guztira bildutako erantzunei dagokienez.

Laginaren adierazgarritasun kuantitatiboa gorabehera, kolektibo desberdinek modu desberdinean erantzungo luketela dioten ikusteko asmoz, tipologia bakoitzean aurkitutako erantzunen azterketa egingo dugu, eta ikasleekin eginiko saioetan eta unibertsitateko langileekin eginikoetan (AZP eta irakasleak) jasotako informazioan egon daitezkeen balizko diferentziak aipatuko ditugu. Bildutako erantzun guztiak III. Eranskinean jarri dira, kategoriaren arabera antolatuta.

6.2. Aurkitutako erantzun motak

6.2.1.- Ez dut indarkeria gisa identifikatzen/Ez nintzateke konturatuko

Kategoria honetan bildu ditugu indarkeria egoera jakin batzuk normalizatuta daudela, indarkeria gisa identifikatzen ez direla, eta haien garrantzia minimizatu egiten dela edo unibertsitate arloan halakorik ez dagoela dioten erantzunak.

Ikasleen artean honako erantzun hauek aurkitu ditugu egoera normalizatuen aurrean; esaterako, mezu matxistak edo **indarkeria sinbolikoko adibideak** dituzten kartelen aurrean: "*Ez genuke ezer egingo ohituta baikaudé*", edo "*Seguruenik ez nintzateke konturatuko*", aditzera emanez askotan ez garela indarkeriaz jabetzen edo hura antzematea kostatzen zaigula. Ikasleen erantzun gutxitan aurkitu dugu erantzun mota hori (% 1,17),



beraz, indarkerien justifikazioaren aurrean, badirudi parte hartu duten ikasleek antzematen dutela indarkeria matxisten garrantzia. Entzute saioetan parte hartu duten irakasleei eta administrazioako langileei dagokienez, kategoria horrekin loturiko erantzun gutxi dago halaber, nahiz eta erantzunen ehunekoa zertxobait handiagoa izan (% 4,36). Indarkeria ezagutzen edo identifikatzen ez dutela diotenek **indarkeria beren ingurunean bertan antzemateko zailtasuna** adierazi dute, honakoak esanez: *"Ez zait erraza egiten halako egoerak irudikatzea nire lanpostuan"*, *"Zail egiten zait halakoak irudikatzea"*.

6.2.2.- Ez nuke jakingo nola jokatu

Ikasleen saioetako erantzunen artean % 3,75ek aditzera ematen dute ez luketela jakingo nola jokatu proposaturiko indarkeria adibideen aurrean.

Ikasleek honako hauez hitz egin digute:

- **Segurtasun falta** jokatu behar den moduari dagokionez: *"Ez dakit zer egingo nukeen, ez nuke jakingo zer egin"*.
- **Informazio falta**, nora joan edo dauden tresna edo zerbitzuei buruz: *"Ez nuke jakingo norengana jo"*.
- Edo batzuetan **indarkeriaren jatorria unibertsitatean** bertan dagoen ideia, eta hortaz, ez dute erantzuteko modurik aurkitzen: *"Ez nuke jakingo zer egin, unibertsitatea baita erasotzen ari dena"*.
- Bestalde, indarkeriaren aurrean erreakzionatzeko **zailtasun emozionala** ere identifikatu da, honako adibide hauen bitartez: *"Shockean geratuko nintzateke"*, edo *"Asko kostako litzaidake kontatzea eta psikologoaren laguntza beharko nuke"*.

Profesionalen erantzunetan unibertsitate barruan eta kanpoan gertaturiko indarkeria kasuen aurrean **nola jokatu ez jakitearen** ideia aurkitu da erantzunen % 10,48an.

Pertsona batzuek diotenez ez dakite nola jokatu behar den indarkeria egoeretan, eta aipatzen dute unibertsitatean gertatzen diren gauza askoren gainean ez dagoela zertan unibertsitatetik bertatik esku hartu, ez baitakigu nola jokatu halako egoeren aurrean (*"Ez nuke jakingo nora jo unibertsitate barruan"*, *"Gauzak gertatu dira hemen eta ez dakigu horiek nola kudeatu"*).

Horretaz gain, unibertsitateak zenbait muga dituela diote, eta muga horiek indarkeria egoren aurrean zerbait egitea galarazten dutela: *"Kanalak badira, baina mugak ere bai"*.

Beste pertsona batzuek, aldiz, ez dakite nola jokatu ez direlako egoerekin identifikatzen, edo uste dutelako eragina izan dezakeela beraiengan (*"Ez zait iruditzen halakorik niri gerta dakidakeenik"*).

6.2.3.- Zerbait egingo nuke

Kategoria horren barruan bildu dira pertsonak beren kabuz eta unibertsitatearen edo bertako zerbitzu edo langileren baten laguntzarik gabe hartzen dituzten neurriekin loturiko erantzunak, baita neurriak norberaren kabuz baina kanpoko talde edo zerbitzuren baten

laguntzarekin hartzen diren kasuak ere, baina betiere unibertsitatearen babes eskatu gabe. Zalantzarik gabe, horixe da gehien aurkitu den erantzun mota, bai ikasleen kasuan, bai profesionalen kasuan; hala, ikasleekin eginiko saioetan bildutako erantzunen % 46,64 izan dira, eta langileen saioetan bildutakoen % 56,76.

6.2.3.1. Nire kabuz hartuko nituzke neurriak

Modu indibidualean, nor bere kabuz, laguntza edo baliabiderik edo beste pertsonetikiko kontakturik gabe jarduteko modua da ikasleen erantzunen artean aurkitutako aurre egiteko modurik ohikoena (% 38,56).

- Alde batetik, indarkeria eragiten ari den pertsonari **zuzenean erantzutearekin** loturiko erantzunak daude, eta gerta liteke ez ondo neurtzea aurre egite horrek ekar ditzakeen ondorioak, edo ez jakitea halakorik egiaz egin ahal izango litzatekeen; gerta liteke, halaber, ikasitako modu batean erantzutea indarkeriari, ulertuta zuzenean erantzun behar zaiola, nor bere kabuz, edo bestela, nor bere burua babestuta. *"Zuzenean esan ez ditzala halako komentarioak berriz egin"; "Eskua altxa eta nire iritzia esatea eskatu"; "Hori egiten ari denarekin eztabaidatuko nuke"; "Erantzun, nahiz eta ez baimenik eman".*
- **Erantzun emozionalekin** loturiko zenbait esaldi ere aurkitu ditugu; esaterako, *"Aurpegi txarra jarriko nuke",* edo *"Nazka aurpegia jarriko nieke".*
- Horien artean, zenbaitek erreakzio gogorra erakusten dute: *"Matxista batzuk direla esango nieke", "Aurre egingo nieke", "Kartelak kenduko nituzke";* baina beste batzuek erakusten dute erantzuteko modua isiltzea dela: *"Ezkutatzea, kosta ahala kosta saihestea", "Harago joango del beldurra".*
- Ikasle batzuek adierazi dute neurri horiek hartzeko **une** botere harremanaren mende ez leudekeenean izango litzatekeela: *"Irakasgaia amaitzen denean, kexatu";* eta beste batzuk ekintza gauzatu duen pertsonari boikot egitera ausartzen dira: *"Bere eskoletara joateari utziko nioke", "Altxa eta gelatik alde egin", "Klasea etengo nuke".*
- Horrekin lotuta, zenbait pertsonak esan dute unibertsitateak hartu beharreko neurriek emaitza eraginkorrak izan beharko lituzketela: *"Irakasleek ez badute jarreraz aldatzen, denbora epe labur edo luze batez kaleratu, baina ondorioren bat izan beharko luke".* Hala, ikasleek erakusten dute unibertsitatean dagoen hierarkiaz jabetzen direla, eta batzuetan *"Ez dagoenez errepresaliarik, beti isiltzen gara".* Horregatik hartzen dute beren kabuz erreakzionatzeko erabakia, unibertsitateak ezer egingo ez duela sinetsita.

Beste pertsona batzuek jasan ditzaketen indarkeriei dagokienez, ikasleen erantzunetako askok diote lekuko diren indarkerien aurrean laguntza eskainiko luketela eta egoerari aurre egingo lioketela. Hala, *"Trans pertsonak babestea", "Argazkiak ez pasatzea", "Harengana hurbildu eta nire laguntza eskaintzea", "Pertsonarekin hitz egin eta zer egin nahi duen galdetu"* bezalako adibideak eman dituzte, baina **norberak** bizi ditzakeenei dagokienez, badirudi zalantza gehiago dituztela, unibertsitatekanpo bizi diren indarkeriak (adibidez, ikasle pisuetan izan daitezkeen arazoak edo bikotearen jazarpena jasatea) unibertsitatearekin zerikusirik ez dutela, eta hortaz, nor bere kabuz konpondu behar dituen



ideia barne. Horren isla dira honako erantzun hauek: "Pisutik botatzea", "Harremana moztzen saiatzea", "Utzi egingo nuke", "Harremana utziko nuke", "Harekin hitz egingo nuke aurrez aurre", "Harengandik urrunduko nintzateke".

Horrekin lotuta, kategoria honetan aurkitu ditugun erantzunek aditzera ematen dute ikasleek pentsatzen dutela unibertsitateak ez duela ezer egingo haren barruan gertatzen diren indarkeria egoeren aurrean, baina bestalde, ez da unibertsitatearen ingurunearen barruan gertatzen ez diren indarkerien aurrean laguntza eske joan gaitezkeen erakunde baten modura ageri.

UPV/EHUn lan egiten duten pertsonen dagokienez, erantzunen % 43,66an aipatu dute beren kabuz bilatuko lituzketela indarkeria horientzako konponbideak, eta hortaz, erantzuteko modurik ohikoena litzateke irakasleen eta AZPko langileen kasuan ere.

- Aurkitutako erantzunetako askok egoerak ezagutzera eman gabe ekiteaz hitz egiten dute: "Isilpean gorde", "Irentsi".
- Beste batzuek, aldiz, egoerari ez aurre egiteaz eta ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatzeari hitz egiten dute ("Paso egingo nuke gaiaz", "Beste alde batera begiratu nuke").
- Gainera, aipatzen dute batzuetan ez dela ofizialki esku hartze ez litzatekeelako konponbide bat emango ("Paso egingo nuke. Ez dut uste ofizialki ezer egingo zenik").

Bestalde, adierazi dute egoera hori ikasleren bati gertatuko balitzaio eta beraiei kontatuko baliete babesa eskainiko lioketela, baina ez luketela jakingo zer egin arazoa entzuteko ariketaren ostean ("Irakasle bati gertatu zitzaion, ez zen joan eta arazoak izan zituen GALan, kontatu egin zigun eta inork ez zuen jakin zer egin").

Halako indarkeriak gertatzen direnean zuzenean ekiteari dagokionez, profesionalek zuzenean erasotzailearekin hitz egitea aipatzen dute, hura geldiaraztea edo egiten duenagatik atentzioa ematea. Dena den, erantzun horiek gutxiengoak dira. Gainera, aipatu da egoera horiek gertatuko balira pertsona batzuek baja hartuko luketela lanpostuan halako egoera batetik ez igaro behar izateko, edo kanpoko laguntza bilatuko luketela irtenbide gisa: "Baja estali bat hartuko nuke", "Ondo eramaten saiatuko nintzateke eta kanpoko laguntza psikologikoa bilatuko nuke".

Azkenik, irakasleen erantzunen artean, indarkeria egoerak geletan lantzea aipatzen dutenak aurkitu dira, hala egoera horiek ikusgarri egiteko eta erantzunak emateko ("Gaia landu irakasgaien bidez"). Horretaz gain, indarkeria egoeren aurrean laguntza dela ekintza nagusia diote, zehazkiago LGTB kolektiboen kasuan.

6.2.3.2. Zerbait egingo nuke eta beste pertsona edo zerbitzu batzuk sartuko nituzke tartean

Kategoria honetan jaso ditugu pertsonen zuzenean erreakzionatuko luketela dioten



erantzunak, baina beste pertsona batzuen laguntzarekin. Katgoria horretan daude ikasleen erantzunen % 8,08.

- Hala, ikasleen artean, indarkeriazko jarrerak dituztenei **zuzenean eta taldean erantzuteko** proposamenak biltzen dira: "Jendearekin joan eta sekulakoak esan", "Haien aurrean jarri", "Irainduta sentitu diren pertsona guztiei hitzalditik joatea proposatu"; eta beste erantzun batzuetan argazki bidalketaren katea haustea eta hainbat pertsonaren artean mezu matxistak dituzten kartelak kentzea aurkitu dira.
- Beste pertsona batzuek jasaten duten indarkeriaren aurrean babes kolektiboa eskaintzeaz hitz egiten duten erantzunak ere aurkitu dira: "Errespetua galdu dion jendearekin hitz egiten saiatuko nintzateke", "Jendeari gelditzeko esango nioke", "Barre egiten duten pertsonekin hitz egingo nuke".
- eta bakarka ekingo luketen baina **norbaiten laguntza edo babesa** beharko luketela identifikatzen dutenen erantzunak, zer pertsona motaz ari diren zehaztu gabe: "Norbaiti eskatuko nioke laguntzeko", "Kontatu egingo nuke", "Esan, jendeak jakin dezan", "Aholkua bilatuko nuke", "Pentsatzen dudana besteekin partekatuko nuke".

IRI/AZPko langileekin eginiko saioen kasuan, jardun mota hori erantzunen % 13,10ean aurkitzen da, eta laguntza bilaketa ez da haiengandik hurbilen dauden pertsonetara mugatzen (adibidez sail berekoak), aldiz, handik kanpo zabaltzen da; esaterako, unibertsitateaz kanpoko elkarteak ("Zerbait egingo nuke unibertsitatea ez den beste elkarte batean").

Beste zerbitzu batzuei dagokienez, unibertsitateko langileek aipatu egiten dituzte, baina egoera horietarako zerbitzu espezifikoak zein izango litzatekeen zehaztu gabe ("Sindikatuetara eta aldeazlearengana jo", "Unibertsitateko zerbitzu medikora").

6.2.4.- Senideengana eta lagunengana joko nuke

Hurbilekoengana jotzeko aukera –familia edo lagunak– ikasleen erantzunen % 5,50ean aurkitu dugu.

- Hurbileneko ingurunearengana jotzeko erantzuna **zuzeneko indarkeria** jasateko kasuetan zehaztu da: "Lagunekin hitz egin eta aholkua eskatuko nieke", "Lagunei eskatuko nieke ni babesteko", "Laguntasun sareak sortuko nituzke", "Lagunen laguntza bilatuko nuke".
- Horrekin lotuta, bereziki nabarmentzen dira pertsonaren **lagun talde naturalak**: "Ez nuke ezer egingo eskolan, lagunei kontatuko nieke", baina, batzuetan familia ere ageri da **babes edo kontsulta iturri** gisa: "Nire gurasoekin hitz egin", "Aitari/amari kontatu", "Hurbileko norbaiti iritzia eskatu", "Nire konfiantza zirkuluan komentatuko nuke".
- Sarri, hurbileko pertsonekin dugun lehen kontaktu horrek berekin dakar **ziur egoteko premia bat inongo erabakirik hartu baino lehen**, hau da, hurbileko



pertsonen iritzia bilatzen da nola jokatu erabakitze aldera.

Bestalde, administrazioko langileen eta irakasleen erantzunen % 4,80k dio aintzat hartzen dutela hurbileko babesa, bereziki zuzeneko indarkeria jasaten ari badira: "Laguntza pertsonala bilatu oso hurbilekoa dugun lagun taldean", "Familiari laguntza eskatu", "Nire jendearekin hitz egingo nuke", "Unibertsitatean ez nioke inori esango, Kanpoan dudan pertsona bati baizik. Lanean jarraituko nuke". Parte hartzaileek hurbilekoak aipatu dituzte babes iturri gisa: "Nire familia ingurunean eskatuko nuke laguntza", "Hurbileko zirkuluan eskatuko nuke laguntza", "Gurasoekin edo lankideekin hitz egingo nuke", "Ingurukoekin hitz egingo nuke", "Lagunei komentatu".

Hala, familia eta lagunak agertzen dira, bai ikasleen erantzunetan, bai profesionalenetan, indarkeria egoeretan babes eta laguntza iturri gisa.

6.2.5.- Ikasleengana joko nuke

Batzuetan, aurkitutako erantzunek ikasle taldearengana jotzea aipatzen dute, neurriak hartu edo babesa bilatu aurreko urrats gisa.

Halako erantzunak ikasleen artetik jasotako erantzunen % 7,14an aurkitu dira, eta babes eske ikasgelako taldearengana jotzen dutenen eta antolaturiko ikasle taldeengana jotzen dutenen artean banatu dira (ikasle sindikatuak edo talde feministak).

AZP/IRI langileen kasuan ez da erantzunik aurkitu indarkeria jasateko kasuetan edo indarkeria kasu baten berri izatekotan ikasle talde antolatu batengana joko luketela aditzera ematen duenik. Ikasleak aipatzen dira langile gisa beren bulegora kasuren bat iristen denean eta haiei laguntzea edo entzutea eta haiekin batera egoerari aurre egitea erabakitzen dutenean, edo indarkeriak ikasgelan lantzen dituztela diotenean. Ez dute aipatzen inolako talde antolaturik edo ikasgelako talde espezifikorik.

Gelako taldea

Ikasleek diote kasu batzuetan gainerako ikaskideekin hitz egingo luketela kexa baten aurrean indar gehiago izateko, edo erreakzionatzea berebizikoa den edo taldearen babesa duten jakiteko.

- Hala, horrelako erantzunak aurkitu dira lehenengo ikaslearekiko **adostasuna bilatzen denean**: "Lehenengo nire gelako jendearekin hitz egingo nuke, eta ondoren, irakaslearekin", "Ikaskideak konbentzitzen saiatuko nintzateke boikot egiteko".
- Beste batzuetan, **taldea da kexa bideratu ahal izateko bidea**: "Gelako ordezkariarengana joko nuke, eta irakaslearekin hitz egiteko eskatuko nioke", "Ordez kariari kexatzea".
- Beste batzuetan, **erreferenteen bilaketaz** hitz egiten da, egoerari garrantzia

emateko: "Beste ikasle batzuekin partekatuko nuke gertatutakoa haiei ere antzeko zerbait gertatu zaien jakiteko", "Ikaskideei galdetu gauza bera gertatzen zaien jakiteko", "Gelako beste pertsona batzuekin hitz egin nik sentitzen dudana sentitzen duten jakiteko, eta nahikoa arrazoi ikusiz gero, kexa bat aurkeztu".

Berdinen taldea, hortaz, erreferentzia eta neurgailu gisa hartzen da egoera bat garrantzitsua den edo ez balioesteko, edo neurriak hartzeko adina garrantzi duen erabakitzeke, baita babes eta erantzun kolektiboko erreferente gisa ere. Erantzun mota hori aurkitu da ikasleen erantzunen % 4,57an.

6.2.5.1. Talde antolatua

Bestalde, ikasleek ez dute horrenbeste jotzen berezko antolamendua duten ikasle taldeengana, eta % 2,57an bakarrik aurkitzen da halako bilaketa bat.

- Talde antolatu gisa aipatzen dira **ikasle sindikatuak** ("Sindikatueta jotzea") edo ikastegi edo fakultate bakoitzeko **talde feministak**: "Talde feministarekin hitz egin eta zer neurri har genezakeen ikusi", "Talde feministarengana joko nuke arazoa ikusarazteko eta publikoki salatzeke".
- Horrekin lotuta, badirudi kolektibo horiengandik gertu dauden pertsonak ezagun dituztela edo laguntza eskatu lezaketela bertan, baina atal honetan erantzun gehiago ez egotea ikasle askok **talde horien berri ez duten edo haiekin harremanetan nola jarri ez dakiten** seinale izan daiteke.

6.2.6.- Unibersitatara joko nuke

Jasotako ikasleen erantzunen artean % 21,32k erreferentzia egiten diete unibertsitatearengana jotzeari indarkeria matxisten biktima izan edo halako baten berri edukitzeko kasuan jo beharreko erakunde gisa. Horietako % 6,09k modu orokorrago edo abstraktuagoan hitz egiten dute, hau da, identifikatu gabe zer zerbitzu motari edo unibertsitateko zer langileri legokiokkeen ekimen hori jasotzea.

- Haietan "Unibertsitatearen mekanismoetara jotzea", "Unibertsitatean komentatzea", "Arduradunarekin harremanetan jartzea", "Goiko kargu batengana jotzea", edo zehatz definitzen ez diren neurri orokorrak hartzea aipatzen duten erantzunak identifikatu dira: "Rexaren bat jarri edo desadostasuna azalduko nuke", "Kexa formal bat jarriko nuke unibertsitatean".
- Erantzun horien arabera, badirudi **ikasleek** unibertsitateko mekanismoak edo zerbitzuak **erabili nahiko lituzketela, baina praktikan ez dituztela ezagutzen**, edo ez dituztela ezagutzen irakasleen barruan dauden estamentu eta maila desberdinak.
- Azpimarratzekoa da, halaber, kasu bakar batean identifikatu direla AZPko langileak laguntza eskain diezaieketen langile gisa: "Idazkaritzara joango nintzateke kexa non jar dezakedan galdetzeraz".



- Era berean, bitan jaso da ikasle parte hartzaileek ezagutzen zutela Psikologia Aplikatuko Zerbitzua (PAZ), baina egoera hori anekdotikoa da, gehienek ikaskideekin eztabaidatzean ezagutzen dutelako zerbitzua, baina ez aldez aurretik.
- Zenbait pertsonak unibertsitatean bertan artatzen duten zerbitzuen beharra adierazi dute atal honetan; esaterako, autolaguntzako taldeak. Unibertsitateari eginiko eskaerak ere badaude, irakasleen prestakuntzaren garrantzia azpimarratuz: "Kexak eta feminismoaren arloko prestakuntza eskatzea irakasleei", edo berariazko eskaerak, esaterako, eskolen orduak ez daitezela publikoak izan edo segurtasun eta zaintza neurriak ezar daitezela.

6.2.6.1. Irakasleak

Ikasleek irakasleengana joko luketela dioten kasuan (% 4,57), beste **irakasle baten aurrean** babesa eskatzeko egiten dute ("Beste irakasle batekin hitz egin eta neurri zorrotzak hartu, beharrezkoa balitz"), edo irakaslea ezaguna duelako ("Konfiantzazko irakasle batekin hitz egin").

Nabarmentzekoa da zenbait saiotan **Berdintasun Batzordea** aurkitu dela bizitzen ari diren egoerak adierazteko aintzat hartzen den erreferente garrantzitsu gisa. Horretaz gain, **irakasleak kolektibo gisa** identifikatzen dira, prestakuntza edo egoera horiek saihesteko ekintzak eskatzeari dagokionez: "Espazio bat eskatzea eskoletan trans gaiari buruzko sentsibilizazioa sortzeko". Erregistraturiko kexetako bat katedra askatasunarekin dago lotuta eta dio askatasun horrek ez lukeela baimendu behar eskoletan edozer gauza esan ahal izatea.

Ikasleek ez bezala, erantzunei erreparatuta, unibertsitateko langileek gehiago ezagutzen dituzte unibertsitateak eskaintzen dituen zerbitzuak. Nolanahi ere, gehiengoak dio bere lankideengana joko lukeela (erantzunen % 4,80): "Lankideekin hitz egingo nuke", "Konfiantzazko gertuko pertsona batengana -lankidea- joko nuke laguntza eske, egoera honetatik ateratzeko".

6.2.6.2. Zuzendaritza/ Dekanotza / Errektoregoa

Unibertsitateko erabaki organoei dagokienez, ikasleen erantzunen % 10,66k dio aintzat hartuko lituzkeela kexak jartzeari begira.

- Hala, **Zuzendaritzari kexak** aurkeztea hautatzen dute bide gisa: "Dekanotzan salatuko nuke", "Kexa bat jartzea irakasleari Zuzendaritzan", "Zuzendaritzarekin hitz egitea". Erantzun horietako gehienetan irakasleek eragindako indarkeria egoerez ariko ginateke, eta hortaz, botere harreman batean indarkeria egoera bat antzemanez gero, ikasleek unibertsitatea erabakitzeko boterea duen erakunde gisa ikusiko luketela uler dezakegu. "Zuzenean Dekanotzara joko nuke", "Atentzioa deituko nioke (irakasleari) eta bere sailaren zuzendariarekin hitz

egingo nuke”.

- Araban eginiko saio jakin batean ikasleekin eginiko gainerako saioetan baino askoz ere maizago erregistratu da erantzun hori, seguruenik taldearen ezaugarriak direla eta, IV. Eranskinean jasotzen den moduan.

Unibertsitateko organo espezifikotara jotzeari dagokionez, irakasleek zein administrazioko langileek unibertsitatean dauden zerbitzuak aipatu dituzte: “Ikastegiko zuzendaritzari jakinaraziko nioke, edo Berdintasunerako Zuzendaritzari”, “Berdintasun Batzordean hitz egingo nuke”, “Dekanotzara joko nuke”.

Nolanahi ere, zerbitzu horietara jotzeaz hitz egiten duten erantzunetako askok zerbitzua ezagutzen dutelako diote, baina, aldi berean, ez dute ezagutzen nola lan egiten duen: “Berdintasun Batzordean planteatuko nuke. Ez dakit zer tresna dituzten”. Ekintza mota hori langileekin eginiko saioetako erantzunen % 6,55ean aurkitu da.

6.2.7.- Gizarte salaketa

Ikasleek salaketa publikoa egiteko hainbat bide identifikatu dituzte beren erantzunen % 7,03an eta **sare sozialak eta sinadurak biltzeko kanpainak azpimarratu dituzte bereziki** bestela ikusiko ez liratekeen egoerak ikusgarri egiteko erabili beharreko estrategia gisa. Baita pintadak, manifestazioak, ikusgarritasun taldeak eta banderak, kanpainak, eta abar ere; horrez gain, “Babesak bilatu eta hedabideetara eramateko” edo “Arazoari ikusgarritasuna emateko”, “Rexatzeko, manifestatzeko”, eta “Publiko egiteko” izan dira beste erantzun batzuk. **Gizarte presioa egitea**, bere horretan, agertu da ikasleek beren ahotsa entzunarazteko aukeraturiko bide gisa, halakorik egitea errazten ez duten estamentuen mende egon gabe, edo bide formaletatik egiteak “Ezertarako balio ez duela” sinetsita beste bide bat bilatzeko, berriz ere ikasleak eta unibertsitateak bereiz jarrita, babes erreferente gisa. Ikusarazteko estrategia horren barruan, ikasleek hainbat motatako **elkarteak** eta sare sozialak aldarrikatzen dituzte aliatu gisa.

Gizarte salaketei dagokienez, saioetan parte hartu duten langileen % 7,42k erantzun dute beraiek egin dituztela prebentzio kanpainak eta salaketak beren fakultatearen barruan, eta ikusgarri egin dituztela indarkeria egoerak. Nolanahi ere, honako hau ere adierazi dute: “Ez dut uste maila ofizialean ezer egingo luketenik, saiatuko nintzateke zerbait antolatzen emakume talde gisa”.

6.2.8.- Salaketa judiziala – polizia salaketa

Azkenik, salaketa judizialari dagokionez, ikasleen erantzunen % 7,38an aurkitu da, ulertuta gehienbat polizia erakundeetan jarriko liratekeela salaketa horiek. **Ertzaintzan salatzea** izan da gehien aurkitu den erantzunetako bat, nahiz eta batzuetan, **ez den salaketa mota zehaztu**, edo ez den adierazi ezagutzen ote diren salatze bideak eta horren ondorioak.

Aurrekoa gorabehera, ikasleei ezagunak egiten zaizkie urruntze agindu bezalako

kontzeptuak, eta azpimarratzen dute frogak jasotzea ere garrantzitsua dela: “Badakigu gure hitza zalantzan jarriko dutela”, eta hala, salaketen eraginkortasunari buruzko zalantzak ere erakutsi dituzte.

Irakasleei eta administrazioari langileei dagokienez, erantzun gutxiagotan agertzen dira halako salaketak (% 4,80), eta horregatik, gutxiago aipatzen dute polizia salaketa. Batzuetan, salaketaz hitz egiten duten erantzunak aurkitu dira, salaketa mota zehaztu gabe. Neurri txikiagoan, honelako erantzunak aurkitu dira: “Zuzenean salatuko nuke, baina frogarik ez aurkeztu ahal izatearen beldur izango nintzateke, baita legeak, zu babestu beharrean, guztien ahotan jartzearen beldur ere”.

6.3. Erantzun ehunekoa eta erantzunen arteko desberdintasunak ikasleen kasuan


Saioetan parte hartu duen lagina ez denez UPV/EHUko kide guztien erakusgarri, ditugun datuekin egin ditzakegun berrespen guztiak kontrastatu egin beharko lirateke biztanleriaren adierazgarri izango den diagnostiko baten bidez. Hala ere, merezi du parte hartze honetan bildutako erantzunen ikuspegi orokorretik atera daitezkeen zenbait datu azpimarratzea.

Alde batetik, ikasleekin eginiko saio guztietako erantzunen ehunekoa jasotzen badugu, ikusiko dugu 3. dinamikan eman diren erantzunen gehiengoak aditzera ematen duela **indarkeriari erantzungo lioketela edo beren kabuz erreakzionatuko luketela**. Hala, mota horretako **% 38,56 erantzun** egon dira. Jarraian, ikasleen erantzunek aditzera ematen dute Dekanotzara edo Ikastegiko Zuzendaritzara joko luketela (% 10,66), beren kabuz jardungo luketela baina beste pertsona batzuk (taldean) edo beste zerbitzu batzuk tartean sartuta (% 8,08), salaketa judiziala edo polizia salaketa jarriko luketela (% 7,38), edo gizartearen aurrean salatuko luketela egoera (% 7,03). Badira beste erantzun batzuk proportzio txikiagoan agertu direnak: unibertsitateari laguntza eskatzea, oro har, (% 6,09); familiarengana eta lagunengana jotzea (% 5,50); gelako taldearengana eta irakasleengana jotzea (% 4,57, hurrenez hurren). Gutxien aurkitu diren erantzun motek laguntza eske ikasle talde antolatu batengana jotzeari egiten diote erreferentzia (% 2,57), edo aurkeztutako egoerak indarkeria gisa identifikatzen ez dituztela diotenei (% 1,17).


<i>Ikasleen saioetan jasotako erantzun motak (kategoriaren arabera)</i>	<i>Erantzunaren ehunekoa</i>
Nire kabuz jardungo nuke	% 38,56
Unibertsitatera-Zuzendaritzara-Dekanotzara joko nuke	% 10,66
Nire kabuz jardungo nuke baina beste pertsona edo zerbitzu batzuen laguntzarekin	% 8,08
Salaketa judiziala – polizia salaketa	% 7,38
Gizarte salaketa	% 7,03

Unibertsitatera joko nuke (oro har)	% 6,09
Familiarengana eta lagunengana joko nuke	% 5,50
Ikasleengana joko nuke – Gelako taldea	% 4,57
Unibertsitatera joko nuke (irakasleak)	% 4,57
Ez nuke jakingo nola erantzun	% 3,75
Ikasleengana joko nuke (talde antolatua)	% 2,57
Ez dut indarkeria gisa identifikatzen	% 1,17


Datu horiek aintzat hartuta, esan dezakegu saioetan parte hartu duten ikasleek adierazi dituzten ideia nagusiak indarkeria matxistak unibertsitatea tartean sartu gabe konpondu behar direla ulertzearekin daudela lotuta, edo erakundeak egoera horien aurrean ezer egingo ez duela ulertzearekin. Indarkeriak unibertsitatearen espazioetan gertatzen direnean, unibertsitatea tartean sartzen duten erantzun gehiago aurkitzen ditugu; adibidez, Zuzendaritzaren aurrean kexa aurkeztea, edo irakasleen aurrean, edo gelako taldean babesa bilatzea. Unibertsitatean gertatzen ez diren egoerei dagokienez, salaketen bidez edo UPV/EHUtik kanpoko zerbitzuen bidez konpondu ohi dira.



Nahiz eta ez ezagutu zehatz-mehatz eginiko saioetan izandako aldagai eta eragin anitzak, dinamikaren aurrean erantzun desberdinak bultzatu ahal izan dituztenak, horien artean nabarmentzekoak dira zenbait erantzun. Honako grafiko honetan bildu ditugu: Hala, ikus dezakegu "3.1. Nire kabuz jardungo nuke" kategoriak Bizkaian eta Gipuzkoan eginiko saioetan erantzunen artean ehuneko handiena badu ere (% 41,11 eta % 40,60, hurrenez hurren), Arabako saioen kasuan kategoria hori erantzunen % 10,60an bakarrik jasotzen dela. Araban eginiko saioen kasuan, adierazitako kategoria horren gainerik beste bi hauek daude: "6.2. Dekanotzara/Zuzendaritzara joko nuke" (% 25,70), eta "8. Salaketa judiziala edo polizia salaketa" (% 16,66).



Aintzat hartzen baditugu dinamika horren aurrean erantzun ehuneko handienak izan dituzten saioak, ikusiko dugu Bizkaiko saioetan, erantzun ehuneko handiena Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean eginiko saioetan izan dela (Bizkaiko erantzunen % 28,22 saio horri dagozkio); ondoren, Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean eginiko Saioa legoke (erantzunen % 19,55). Gipuzkoari dagokionez, Psikologia Fakultatean eginiko saioan izan ziren lurralde horretan jasotako erantzunen % 48,07, eta Arabaren kasuan, Letren Fakultatean eta Gizarte Langintzakoan eginikoan bildu ziren lurralde horretako erantzunen % 87,87. Hala, hurrengo grafikoan saio horietan bildutako erantzunen ehunekoen konparaketa bat ikus dezakegu.



Hala, erantzunen artean desberdintasunak antzematen dira eginiko talde ezberdinetan, eta Gasteizko Letren Fakultatean antolaturiko saioko erantzunen artean (Gizarte Langintzako 1. mailako ikasleekin bakarrik egin zen) azpimarratzekoak dira Unibertsitateko Zuzendaritzara jotzearekin eta salatzearekin loturikoak, gainerako saioetan aurkitutako erantzun orokorragoaren aurrean, haietan aurkitutako lehenengo erantzun kategoria nork bere kabuz ekitearena izan baita.

Aintzat hartuta saioetan jasotako datuekin ezin dela erantzun mota horretan eragina izan dezaketen aldagaiei buruzko ondorioak atera (erantzuten duten pertsonen ezaugarriak, haien adina, ikasturtea, sexua-generoa, edo taldearen ezaugarriak, guztiak ere X. Eranskinean jasoak), komenigarria litzateke UPV/EHUko ikasleek eman ohi dituzten erantzun motei buruzko azterketa sakonago bat egitea.

6.4. Erantzun ehunekoa eta erantzunen arteko desberdintasunak ikasleen eta profesionalen kasuan


Azkenik, ikasleekin eginiko saioetan eta unibertsitateko langileekin (irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetaiko langileak) eginikoetan bildutako erantzunak bereiz aztertuta, alde txiki batzuk aurkitu dira erantzun ehunekoetan.

Hala, unibertsitateko langileek emandako erantzunen artean gehienek diote **indarkeriari nork bere kabuz erantzungo** lioketela (halakoak izan dira **erantzunen % 43,66**). Jarraian, langileen erantzunek aditzera ematen dute, ikasleen kasuan baino proportzio handiagoan, beren kabuz jardungo luketela baina beste pertsona edo zerbitzuren baten laguntzarekin (% 13,10), edo ez luketela jakingo nola erantzun (% 10,48). Jarraian, adierazi dute gizartearen aurrean salatu (% 7,42), Unibertsitateko Zuzendaritzara jo (% 6,55), edo

judizialki edo poliziaren aurrean salatuko luketela, edo familia eta lagunengana edo irakasleengana joko luketela proportzio berean (% 4,80). Azkenik, azpimarratzekoa da langileen artean aurkezturiko egoerak indarkeria gisa identifikatzen ez dituztela diotenen ehuneko handiagoa izan dela (% 4,36).

Unibertsitateko langileen jasotako erantzun motak (kategoriaren arabera)	Erantzunaren ehunekoa
Nire kabuz jardungo nuke	% 43,66
Nire kabuz jardungo nuke baina beste pertsona edo zerbitzu batzuen laguntzarekin	% 13,10
Ez nuke jakingo nola erantzun	% 10,48
Gizarte salaketa	% 7,42
Unibertsitatera-Zuzendaritzara-Dekanotzara joko nuke	% 6,55
Salaketa judiziala – polizia salaketa	% 4,80
Familiarengana eta lagunengana joko nuke	% 4,80
Unibertsitatera joko nuke (irakasleak)	% 4,80
Ez dut indarkeria gisa identifikatzen	% 4,36

Unibertsitateko bi kolektiboetan jasotako erantzunen artean antzematen diren aldeak honako grafiko honetan jaso ditugu.



Ondoriozta dezakegu, kausazko harremanak ezartzeko gaitasuna ez izan arren, edo UPV/EHU osatzen duten pertsonen eragin ditzaketen indarkeriazko egoeren aurrean erantzuteko moduetan eragiten duten aldagaiak ez ezagutu arren, ikuspegi orokor honetan pertsonen eta unibertsitatearen arteko hurbiltasun falta antzeman dugula indarkeria

matxistei erantzuteari dagokionez. Badirudi ez ikasleek, ez unibertsitateko langileek, ez dutela UPV/EHU indarkeriari buruzko babesa edo informazioa emango dien erakunde gisa ikusten.

7. 4. DINAMIKA: Zer egin beharko luke, zure ustez, unibertsitateak?

7.1.- Unibertsitatea erakunde gisa

Entzute saioetan parte hartu duten profesionalak eta ikasleek emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko duen erantzukizuna bere gain har dezan eskatu diote unibertsitateari, eta berma dezala pertsona guztiek lanpostuz igotzeko aukera berak izango dituztela lurralde eta fakultate guztietan, eta gainera:

- Indarkeria matxistarik gabeko unibertsitate bat lortzeko beharrezko ekintzak egin ditzala. 0 TOLERANTZIAKO jarrera izan dezala ("ez dadila justifikatu inongo erasorik").
- Tratu Onaren kultura bultzatzea, aniztasuna erantsitako balio bat izanik praktikan.
- Ikasleak eta profesionalak herritar konprometitu eta arduratsu gisa eraiki daitezen eta harreman iraunkor eta errespetuzkoak izan ditzaten sustatzeko konpromisoa har dezala.

Aldi berean diote unibertsitateak arlo guztietatik inplikatu behar duela ezarritako helburuak lortzeko, horretarako "politika eraginkorrak ezarritak". Baina indarkeria matxistei heltzeko arreta jarri behar diela "estamentu ezberdinen arteko" harremanen zailtasunei. Unibertsitateari eskatu diote harreman hori balioetsi dezala eta azter ditzala botere gehiago duten pertsonen besteei duten estatusa eta rola oinarri dituzten abusuzko egoerak ("irakasle-ikasle jazarpena, bestelakoak").

Haien ustez, unibertsitatean gertatzen den sexismoari eta indarkeria matxistei seriotasunez eta irmo heltzeko eskura dituen bitarteko guztiak jarri behar dira, eta gaiari lehentasuna eman.

Sinetsita daude esku artean dugun arazoa ardatz estrategikoetako bat izan behar dela, eta adierazi dute unibertsitateak, erakunde gisa, jarrera proaktiboa izan behar duela gai horretan.

Horretarako, hainbat jardun proposatu dituzte:

- Prozedurak eta protokolo bakar bat garatzea hainbat indarkeriatarako;
- Beharrezko bitartekoetan inbertitzea unibertsitateko errealitateari erantzungo dioten zerbitzuak eta gailuak abian jartzeko;
- Unibertsitateko pertsonak prestatzea edo prestakuntza espezifikoak duten kanpoko profesionalak kontratatzea ("unibertsitatearekin zerikusirik ez duen

norbait", "neutroa") gai horiekin loturiko erakundearen eta fakultateen prozesuez arduratzeke edo prozesu horietan laguntzeko, baita indarkeria matxistak jasan dituzten pertsonen laguntzeko ere.

Sentsibilizazioaz, prebentzioaz eta indarkeria matxisten kasuetako esku hartzeaz arduratuko diren tresna teknologiko eta didaktiko berritzaile eta eraginkorrak proposatzen dituzte.

Parte hartu duten ikasleek, bestalde, honako hau eskatu diote erakundeari:

- Ikasleekin eta unibertsitateko kideek osatutako elkarteekin hitz egiteko eta haiei entzuteko prest egon dadila.
- Ikasleekin batera lan egin dezala zenbait jarduera elkarrekin antolatzeke, eta arazo honen aurrean jarrera argia eta zorrotza izan dezala.
- Genero aniztasuna, sexu orientazioa, jatorria eta bestelako gai batzuk babesteko dinamikak bultzatzea.

Hurbileko unibertsitate bat eskatzen dute, ikasleen premiak eta eskariak aintzat hartuko dituen. Indarkeria matxistaren biktimak babesteko dituen, eta jarrera eta portaera matxistak zigortuko dituen. Segurtasuna emango duen eta kide dituen ikasleak eta profesionalak babesteko dituen erakunde bat. Pertsona izanik Euskal Herriko Unibertsitatearen jardueraren benetako interesgunea.

Azkenik, erreferentzia egin diote Euskal Herriko Unibertsitatean gertatzen diren indarkeria matxistei buruzko diagnostiko bat egiteko beharrari, horren bitartez identifikatzeko eta ikusgarritasuna emateko indarkeria horiek duten egiturazko dimentsioari, dimentsio sinbolikoari, eta ikasleek eta profesionalak egunero jasaten dituzten zuzeneko indarkeriari.

7.2.- Información, datos reales y transparencia

Profesionalek bereziki azpimarratu dute UPV/EHUko errealitatea ezagutzeko premia, gune ezberdinetan gauzatzen diren sexismoari eta indarkeriei dagokienez.

Nabarmendu dute indarkeria hainbat modutara adierazten dela, unibertsitateko espazio guztietan. Adierazi dute aintzat hartu behar direla unibertsitatearen espazio fisikotik kanpo egiten diren programak ere (ikastaroak, programak, egonaldiak, beste batzuk). Adibide gisa, Erasmus programako ikasleak edo doktoregoa egiteko IRlen egonaldiak aipatu dituzte.

Zehaztu dute ezinbestekoa dela zer gertatzen ari den jakitea indarkeriei eraginkortasunez, modu errealista eta iraunkorrean nola heldu jakin ahal izateko. Baina, batez ere, neurriak eta jarduerak testuinguruaren, pertsonen eta unibertsitatearen helburu estrategikoen premia espezifikoari egokitzeko.

Unibertsitateari erreklamatzeko diote diagnostiko global bat egin dezala, eta gainera,

indarkeria kasuei buruzko datuak bildu eta sistematizatu ditzala, aldizkako txostenak egin eta argitara ditzala, eta salaketen jarraipena gauza dezala, baita hartutako neurrien emaitzena eta haien eraginkortasunarena ere. Azken batean, informazioaren kudeaketa gardena eskatzen dute.

Era berean, parte hartu duten ikasleek eta profesionalek diote ezinbestekoa dela argi eta garbi ezagutzea zein den salaketen ibilbidea, zer pausu ematen diren, eta prozesuaren, ondorioen eta zehapenen jarraipena egitea.

Eskari hori egiten dutenean parte hartzaileak egiazko kasuei buruz ari dira, zeinetan portaera sexista baten ondoren unibertsitatean kexa bat edo salaketa bat jarri ostean (adibideak irakasleekin daude lotuta) une bat iristen den informazioa edukitzeari uzten diotena, eta kexa bide onetik ez joateko aukerari egiten diote erreferentzia (hau da, salatutako portaera geldiaraziko duten zehapen neurri jakin batzuk ezartzea lortzea).

“Gardentasuna. Salaketaren hasiera eta amaiera ezagututa. Zenbat denbora beharko duen jakinda”.

7.3.- La Dirección de Igualdad: comisiones de igualdad en todos los centros

“Urtebetez irakasle baten iruzkin onartezinak jasan behar izan ditugu, irakasgaia ez gainditzera iritsi arte. Ez dugu jakin izan norengana jo edo zer egin Berdintasunerako zuzendariarekin hitz egin genuen arte. Hark esan zigun bazela guk ezagutzen ez genuen Berdintasunerako Zuzendaritza bat eta Batzorde bat”.

Profesionalek eta ikasleek abiapuntu duten ideia da Berdintasunerako Zuzendaritzari merezi duen lekua eta erreferentzia eman behar zaiola, esku artean dugun gaiari bezalaxe. Zuzendaritza erreferentzia sendo eta argi bat izan dadila. Eta behar dituen espazioa, denbora eta bitartekoak eduki ditzala.

Parte hartzaileen iritziz unibertsitateak ez du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko behar adina inbertitzen. Ezta indarkeria matxistei aurre egiteko ere. 180º-ko bira egin dezan erreklamatzen diote, ulertuta Berdintasunerako Zuzendaritzak bultzada sendoa jaso behar duela, eta borondatea eta bitartekoak eduki behar dituela (baliabide ekonomikoak, giza baliabideak, azpiegiturak eta bestelako bitarteko material eta teknologikoak).

Konturatu gara, Berdintasun Planetik abiatuta, Berdintasuneko Batzordeak nahitaezko gisa planteatzen badira ere, parte hartu duten pertsona gehienek ez dutela horren berri. Berez, fakultate guztiek Berdintasunerako Batzordea izan dezaten erreklamatzen dute, eta gainera, Zuzendaritzarekin lankidetzan aritu daitezela:

- Berdintasunerako Batzordeak nahitaezkoak.

- Bulegoak ikusgarri eta irisgarri jartzea campus guztietan.

Azpmarratu dute ezjakintasun handia dagoela Berdintasunerako Zuzendaritzaren inguruan, eta adierazi dute ezinbestekoa dela haren lana eta eginkizunak ikusgarri egitea eta behar duen protagonismoa ematea. Berriz ere agertu da "hurbiltasun" hitza unibertsitateko kideekiko duten harremanarekin lotuta, baita bere eginkizunak argitzeko premia ere.

Parte hartzaileek egun ikusten dituzten zailtasunetako batzuk azpmarratu dituzte:

- Berdintasunerako Zuzendaritzaren ikusgarritasunean eta irisgarritasunean antzemandako lehenengo zailtasuna egun kokatuta dagoen lekuarekin lotzen dute, eta kale mailan egon beharko litzatekeela diote.
- Adierazitako bigarrena UPV/EHUren webgunearen konplexutasuna da.

Profesionalen arabera: *"Unibertsitatearen web espazioa konplexuegia da. Informazioak eta baliabideek irisgarriagoak izan beharko lukete".* Ikasleek, bestalde, ideia bera berretsi dute: *"Hobeto azaltzea nola erabili unibertsitateko webgunea. Gauza askorekin ez gara ohartzen edo ez dakigu non bilatu informazioa; esaterako, gatazka egoeretan zer zerbitzutara jo".*

7.4.- Propuestas para favorecer la igualdad entre mujeres y hombres

Puntu honetan, unibertsitateak garatzen dituen dinamika guztietan genero mainstrimminga⁵ bultzatzeko bai ikasleek, bai irakasleek, garrantzitsutzat jotzen dituzten gogoeta guztiak bildu ditugu. Komunikazioari zein curriculumari dagokienez (baita ezkutukoan ere; esaterako, ikastegietan eta fakultateetan diren adierazpenak eta sinbologiak, masterren sustapena, ikastaroak, eta abar), unibertsitatea osatzen duten pertsona guztientzat aukera berdintasuna bultzatuko duten ekintza positiboak gauzatzeko premiaz hitz egin dute.

Saioetan parte hartu duten pertsonen egiturazko dinamikei buruz eta zuzeneko indarkeriako adierazpenak sostengatu eta bultzatzen dituzten adierazpen sinbolikoei buruz gogoeta egin dutenean gauzatzea garrantzitsutzat jotzen duten zenbait ideia bota dituzte:

Hizkera inklusibo EZ sexista: esan dute hizkera inklusibo EZ sexista erabiltzea nahitaezkoa izan beharko litzatekeela, bai unibertsitatearen barne komunikazioan, bai kanpokoan. Honako hauek nabarmendu dituzte:

- Unibertsitateaz kanpoko erakundeekiko lankidetzak (adibidez: TEKNALIA).
- Webgunea eta euskarri teknologiko guztiak.

⁵ 1998. urteko Europako Kontseiluaren arabera, genero zeharkakotasuna, ingelesezko izenez ere ezagun dena *-gender mainstreaming-*, honako hau da: "prozesu politikoen (berr)antolaketa, hobekuntza, garapena eta ebaluazioa, prozesu horietan parte hartzen duten eragileek genero berdintasuneko ikuspegia txerta dezaten politika guztien maila eta fase guztietan"

- Arlo guztietako ikus-entzunezko euskarriak.
- Fakultateen, tituluen eta rol profesionalen izenak.
- Barneko zirkularrak.
- Irakasleek (ikasleek) erabilitako hizkuntza.

Curriculumari dagokionez, eduki akademikoetan lehentasuna ematen diote genero ikuspegia zeharkako egiteari. Beste alderdi batzuen artean, honako hauek txertatu behar dira:

- Emakumezkoen erreferenteak eta emakumezkoei buruzko aipu bibliografikoak.
- Emakumeen errealitatea irakasgai horietan.
- Erronkak karrera profesional jakin batzuetan berdintasuna lortzeari begira.

-
- Beste sexu nortasun batzuen errealitateak.
 - Generoko, sexu aniztasuneko eta aniztasun funtzionaleko gai espezifikoak.

Kredituen eta merituen bidez generoarekin loturiko irakasgaiak hautatzea eta txertatzea sustatzeko ideia ere azaldu da. Planteatu da nahitaezko edo gutxieneko gisa ezarri beharko litzatekeela feminismoaren eta generoaren arloko prestakuntza edukitzeagatik edo jasotzeagatik merezimenduren bat (irakasleen kasuan) edo kredituren bat (ikasleen kasuan) lortzea. Eskakizun bat izan zedila, edo puntuak eskuratzeko aukera eman zezala, bai lanpostuz igotzeko, bai lanpostua eskuratzeko.

Ebaluazioa eta informazio bilketa: profesionalekin eginiko hainbat saiotan errepikatu diren bi ideia atera dira:

1.- Irakasleen ebaluazio inkestetan honako hauekin loturiko deskribatzaileak eranstea:

- Lengoaiaren erabilera.
- Jarrera eta portaera sexistak.

2.- Irakasle-ikertzaileei eta AZPko langileei zuzenduriko gai berak ebaluatzeko inkestak diseinatzea.

Jasotako informazioa sexuen arabera banatu beharko litzateke.

Ekintza positiboak bultzatzeko premia ikusten dute, eta haietako zenbait aipatu dituzte: parekidetasuna batzordeetan, edo hautagaitza jakin batzuen aurrean lehenengo pertsona emakumea izatea ezar dadila.

Profesionalek identifikatzea, zehaztea eta, hortaz, garaitzea zail egiten den indarkeria mota batengatik kezka azaldu dute. Profesional talde guztien diskurtsoetan diskriminazio "likido" dei dezakeguna atera da. Hainbat adibide jarri dituzte, baita egiazko kasuren bat ere. Horietako batek adierazi du ustez amatasun/aitatasun baimenei edo mendeko pertsonen

arretarekin loturiko baimenei buruzko laneko legedia bat dagoen arren, benetan ez dela halako baimenik edo jardunaldi murrizketarik hartzen, eta hartzekotan, ez dituela eduki beharreko bermeak izaten; alegia, ez edukitzea ondorio negatiborik halakoak eskatu dituztenen lanpostuz igotzeko aukeretan. Egiaz ez da ondo ikusten halakoak hartzea, eta karrera profesionalengatiko interes faltatzat jotzen da; edo bikotea (heterossexuala) osatzen duten bi pertsonen unibertsitatean lan egiten badute, emakumeak dira gehien eskatzen dutenak.

Gai horrekin eta beste batzuekin gertatzen da (kremailera estrategia gisa, zeinetan emakumeak badira erantzukizuneko postuetan ateratzen direnak aurrez uko egite bat hitzartzen den kargua hartu ostean; edo emakumezko doktoregaien egonaldiak oztopatzea prozesuak luzatuta, eta ordura arte beharrezkotzat jo ez ziren araudiak eta bestelako estrategiak justifikatuta; esaterako, eskaera denboran luzatzea eta abar), baina zaila da haiek diskriminaziotzat jotzea eta hala direla frogatzea, eta hortaz, halakoak ahalbidetzen dituzten mekanismoak desaktibatzea.

Berdintasunaren eta emakumeenganako indarkeriaren arazoari nondik heltzen zaion ere kezka eragiten duen gai gisa agertu da:

“Badakit indarraren eta indartsuenaren kultura honetan emakumeak garela kaltetuenak. Baina batzuetan zalantza egiten dut guztia emakume biktimetan zentratzeak ez ote duen mentalitate aldaketa oztopatzen. Gizonak vs emakumeak dikotomia ez dakit taktika ona den helburu jakin batzuk lortzeko. Zalantzak sortzen zaizkit”.

Emakumeei ez ezik gizonen ere zuzenduko zaizkien berdintasun dinamikak sortzea ere planteatu da, kontzientzia eta sentsibilizazioa pizte aldera. Parte har dezaten eta hainbat espaziotan sar daitezen eskatzea dituzten pribilegioei eta botereari buruz gogoeta egin dezaten.

Aldi berean, gizonak feminizaturiko ikasketa arloetan parte hartzeko motibatzea ere planteatu da; eta zergatik parte hartzen ez duten eta hori nola bultzatu aztertzea:

“Ez bakarrik planteatzea zergatik ez dagoen emakumerik jakintzaren hainbat arlotan, baizik eta galdegitea zergatik ez dagoen gizonen beste batzuetan”.

Azkenik, unibertsitatean, fakultateetan, ikastegietan edo irakaskuntzako, aisialdiko edo eskolaz kanpoko jardueretan aurkitzen ditugun irudiak eta sinbologia aipatu beharra daude. Ahalegin bat egin eta balantza alderantziz jartzea, eta hark komunikazio inklusibo ez sexistaren alde egitea, zeinetan rol eta estereotipo sexistak zalantzan jarriko diren, eta tresna bat izango dena kontzientziak eraldatzeko eta zerumuga inklusiboago, berdintzaileago eta justuagoetara zuzentzeko. Emakumea/gizona (heterossexualak) binarismoarekin hautsiko duen komunikazio bat, unibertsitateko kide guztien aniztasuna

bilduko duena (sexu aniztasuna, funtzionala, gorputzen aniztasuna eta abar).

7.5.- Indarkeria matxisten aurkako protokoloa

Parte hartu duten profesionalek beharrezkotzat jotzen dute jarduera protokolo bat; eta ez bakarrik emakumeen aurkako indarkeriei aurre egiteko, baita unibertsitatean gertatzen diren beste indarkeria batzuei aurre egiteko ere (transfobia, homofobia, etab.).

Adierazi dute egoera horiei ematen zaizkien erantzunak ezin direla giza faktorearen mende egon. Protokolo handinahi bat egin behar da, baina ez dezala jaso ondoren beteko ez den ezer. Eskatu dute aplikatzeko arina eta ez oso konplexua izango den tresna izan dadila, azkar artikulatu dadin hala eskatzen duten egoeretan.

Ebaluagarria izango den tresna bat, eta alderdi orokorrak zein espezifikoak bilduko dituen. Lehenengoei saihestuko lukete modu espezifikoan jasotzen ez den egoerak gertatuko balira haiei heldu ahal izatea, kategoria irekiak baitaude. Zehatzagoak diren bigarrenak aukera emango lukete diskriminazio eta indarkeria ikusezin eta sotilagoko egoerak ikusgarri egiteko eta identifikatzeko.

Ikasleek adierazi dute beharrezkoa litzatekeela ikasleek ere protokoloaren lanketan parte hartzea, eta horretarako, beharrezkotzat jotzen dute ideia jorratzeko sistema horizontal bat.

Ikasleek proposatu dute gaiak jorratzeko jarduera mistoak eta EZ mistoak antolatzea. Ez mistoek emakumeentzako espazio seguruak bermatuko lituzkete: *"Hurrengoan hiru saio egitea, generoaren arabera banaturik, eta bat mistoa, ikuspegi komunak eta lanketa bateratua egiteko". "Dinamika hau mistoa izanik, emakumeoi gizonetikiko pedagogia egitea exijitzen zaigu. Botere desberdinak daude"*. Horien arabera, espazio mistoak bakarrik antolatzen badira emakumeek gain esfortzu bat egin behar dute, gizonak aintzat hartu behar baitituzte arazo horren pedagogia egiterakoan, eta diseinuari erreparatuta, espazio misto horiek botere egoera ezberdinean kokatzen baitituzte emakumeak eta gizonak.

Formatuari dagokionez, batzuek egokiagotzat jotzen dute talde txikitik lan egitea, beste batzuek, aldiz, uste dute gero eta parte hartzaile gehiago izan –zehazki, emakumeak– hobe dela.

Ikasleek irakasleen inplikazioa eskatu dute esku artean dugun gai honetan, eta berriz ere irakasleak ikasleengandik hurbilago egoteko premia aipatu dute. Irakasleen eta ikasleen arteko lotura ere landu behar dela diote, hori baita konfiantzazko giroa sortu eta indarkeria matxisten arazoari konponbide egokiak ematea ahalbidetuko duen bide bakarra.

Ikasleek eta profesionalek diote **pertsonen segurtasuna** lehentasuna dela:

- Eraso sexisten biktimak.
- Salatzailak edo egoera jakin bat jakinarazten dutenak.



Anonimotasuna eta segurtasuna bermatzeko premia azpimarratu da. Izan ere, horiek gabe zaila da pertsonak beraiei edo beren kideei gertatzen zaiena jakinaraztera hurbiltzea.

Paraleloan, parte hartzaileek eskatu dute protokoloak jakinarazpen edo salaketen kasuan jarraituko den ibilbide guztia jaso dezala; nola egingo den **jarraipena**, eta zer ondorio izango dituen abusuaren egileentzat eta unibertsitatean bertan, eta beharrezko izanez gero, aukera eman dezala neurri jakin batzuk hartzeko edo araudia eta funtzionamendua aldatzeko.

"UPV/EHUK erakunde bezala erantzun bat ematea salaketaren ondoren. Ikasleen erantzun bortitza, ridikulizazioa. Salaketa publikoa aldaketa bat exijitzeko."

"UPV/EHU: kaleratzeak exijitza erasoaren arabera. Erasoen arteko maila ezberdinak zehaztu behar dira, zigorra horien arabera izan dadin. Non dago muga?"

"Zigor instituzionala: Barkamen publikoa, egun batzuetako zigorra, soldata jaistea."

"Zigorrek ekintza gutxiesgarrienkatik".

Abusuaren egileek **ondorioak izan edo zigorrek jasotzearen** ideia hainbat aldiz errepikatu da lantalde askotan. Bereziki aipatu da ez dadila egon immunitate aukerarik egilearen posizio akademikoa edo profesionala dela eta: *"Irakasleak ez daitezela ukiezinak izan gai hauetan, indarkeria gauzatzen ari badira, geldiaraz ditzatela"*. Ikasleei dagokienez, aintzat hartu beharreko hainbat ekintza proposatu dituzte:

- Erasotzaileak kaleratzea.
- Aurrekariak dituzten pertsonak sar daitezen galaraztea.
- Barkamen publikoki eskatzea.
- Soldata jaistea.

Parte hartzaileak kezkatuta agertu dira bazterkeriako eta eraso sexistako egoera zehatzak ikusarazten dituztenek jasan ditzaketen errepresaliek. Bermeak eskatzen dituzte salaketa/jakinarazte prozesuetan, ondorio negatiboak saihesten daitezen.

Horrekin lotuta, adierazi dute pertsonak unibertsitatearen laguntza jaso behar dutela, baita arlo horretan espezializatuta dauden profesionalena ere. Ikasleek zehaztu dute "laguntzaileak emakumezko profesionalak" izan daitezela indarkeria egoerak jakinarazten direnean, epaimahai batean salatu ala ez gorabehera.



Funtsezkotzat jotzen dute protokoloaren berri ematea profesional eta ikasle guztiei, unibertsitateko arlo guztietakoei, eta jakinarazpen hori programatua izan dadila eta urtero egin dadila.

Idea gisa hainbat aldiz iradoki dute ikasleen **lehenengo harreran** informazioa eman dadila Berdintasunerako Zuzendaritzari, protokoloari, erreferentziazkoak diren zerbitzuei eta pertsoneri eta profesionalei buruz, unibertsitateko beste zerbitzu batzuekin egiten den bezalaxe:

Harrera edo "WELCOME-PACK": unibertsitateko bizitzarekiko lehenengo kontaktuak bestelako izaera bat eduki beharko luke. Garrantzitsua litzateke Berdintasun Batzordeari, haren zereginei, kokapenari eta sarbideari buruzko informazioa ematea; baita protokoloari eta hari atxikitako zerbitzuei buruzkoa ere (terapia psikologikoa, lege orientazioa, bestelakoak). Unibertsitatara iristen direnetik, ikasleek eta profesionalek berdintasunaren eta indarkeria matxisten inguruan programaturiko jardueri buruzko informazioa izango lukete: prestakuntza, prebentzioa eta laguntza eraso baten biktima izanez gero.

Indarkeria horiek unibertsitatearen esparruan 0 tolerantzia dutela jakinaraziko litzaieke, baita zer ondorio dituen jarrera eta portaera sexistak izateak ere.

Parte hartzaileek azpimarratu dute oso garrantzitsua dela protokoloaren edukiak hedatzeko plan bat egitea, zerbitzuetara nola jo azaltzea, nola jarri kexa edo salaketa bat, eta nola jakinarazi indarkeria egoera bat, baita horietako kasu bakoitzean zer prozesu jarraitzen den ere. Eta hori modu erakargarri eta pedagogikoan egitea. Horretaz gain, hedapena Gaur plataformaren edo e-gelaren bidez egitea ere proposatu da; hau da, erlaitz gisa ager dadila.

Informazioa iristen dela bermatzeko, ikasleek berariaz aipatu dute Ikasle Batzordeek zein irakasleek informazioa edukitzearen eta ematearen garrantzia. Bi bideok egokiak lirateke protokoloaren edukiak eta gauza daitezkeen jarduerak jakinarazteko.

7.5.1.- Sentsibilizazioa eta prebentzioa kontzientzia sortzeko, arazoa ikusgarri egiteko, balioak aldatzeko eta portaera sexistak murrizteko

"Arazoa indarkeriaren normalizazioa bada, ulergarri egitea eta ukatzea. Indarkeria badago, argi dago zerbaiti buruzko jakintza falta dagoela, ez baita halakorik gertatu behar. Ikusaraztea!"

Parte hartzaileen ustez unibertsitateak indarkeria matxistei buruzko sentsibilizazioko eta prebentzioko dinamikak aktibatu behar ditu. Adierazi dute prebentzioa protokoloaren zati izan behar dela, eta ikasgela barruko eta hortik kanpoko jarduerak bildu behar dituela. Horrekin lotuta, kolektibo hartzailea unibertsitatea osatzen duten pertsona guztiak izan behar dira haien ustez.

Eta erantsi dute, atal honen izenburuan adierazitako helburuez gain, honako hauei begirako dinamikak sustatu behar direla:

- Indarkeria matxistei zilegitasuna kenduko dien unibertsitateko kontzientzia esparru bat sustatzea.
- Bazterkeria seinalatuko duten jarrerak sustatzea, horiek desaktibatuko dituzten eta halakoak jasan behar dituztenei babesa emango dieten portaerak.

Horretarako hainbat kanpaina egitea proposatu dute:

- Indarkeriak identifikatzeko, batez ere “bazterkeria sinbolikoak eta egiturazkoak ikusarazteko”, “zenbait jarrera –asko hierarkiarekin lotuak– ezagutzera emateko”, “arazoaren dinamikak ikusarazteko”.
- Egoera jakin batzuetan eman beharreko urratsei buruz informatzeko eta orientatzeko.
- Sexu aniztasuna eta aniztasun funtzionala ikusgarri egiteko.

Hori guztia pedagogikoak ez ezik, pertsonentzako erakargarriak izango diren estrategien bidez: emakumea/gizona dikotomian sakondu gabe. Komunikazio sortzailea, ekimen artistikoak eta ikus-entzunezko formatuak erabilia, baita foroak/aldizkariak eta sare sozialak ere, adierazpen askatasun guztiarekin.

Kanpainak antolatzea eta unibertsitateak bere gain hartzea haiek bertako kide guztien artean zabaltzeko ardura, eta kanpainok barnean har dezatela “sentsibilizazioko eta genero indarkeriari buruzko elkarrizketako espazio iraunkorrak sortzeko” aukera.

Kanpaina horietan eztabaidarako eta elkarrizketarako espazioak gaitu daitezela proposatu dute. Emakumeen ahalduntzea sustatuko duten lantegiak (autoestimua, autodefentsa, erabakiak hartzea, eta abar). Non sexu indarkeriaren gaia jorratuko den eta indarkeria egoeren aurrean nola jokatu dioten jarraibideak emango diren.

Azkenik, parte hartzaileek beharrezkotzat jo dute indarkeria matxisten gaia ez eskaintzea bakarrik ikasgeletatik eta curriculumetik kanpo antolaturiko ekimenen bidez. Behin eta berriz azpimarratu dute gai hori geletara eramatearen garrantzia, jarduerak antolatuta ikasturtearen barne dinamikaren barruan, eta haietan parte hartzea nahitaezkoa izanik ikasle, irakasle eta AZPko langile guztientzat.

Entzute taldeetan honako ideia hauek entzun dira:

- *“Kontzientziazio aste bat: informazioa, lantegiak, hitzaldiak, babesa, ikastaroak, prestakuntza eta abar”.*
- *“Jardunaldi feminista ez-mistoak”,*
- *“Genero indarkeriari buruzko gogoeta jardunaldiak, arazoari buruz kontzientzia hartzeko, eta non biktimek beren esperientziaren berri emateko aukera izango*

duten”.

- *“Inkestak egin, arazoa ikusarazteko. Arazorik ez dagoela esaten dutenek ikusteko eta ulertzeko. Gai hau guztiona egiteko.”*

7.5.2.- Prestakuntza, kontzientzia sortzeko eta unibertsitatea indarkeria matxistarik gabeko espazio bilakatzeko

Prestakuntza, prestakuntza eta prestakuntza gehiago. Konstante bat izan da entzute prozesuan parte hartu duten pertsonen aldetik. Indarkeria matxisten, generoaren eta feminismoaren inguruan prestakuntza jasotzeko esperientziak.

Premia hori sortu zaie entzute prozesuan parte hartu duten unibertsitateko kide guztiei: ikasleak, eta rol eta zeregin ezberdinak dituzten AZPko langileak eta irakasle-ikertzaileak (berdintasun batzordeak osatzen dituzten pertsonak barne).

Horien iritziz, prestakuntzak honelakoa beharko luke:

- Nahitaezkoa eta unibertsala.
- Urtero programatua.
- Hainbat maila: oinarrizko prestakuntzatik master formatura arte.
- Hainbat gai.
- Unibertsitateko estamentu guztientzat (ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak, Errektoregoa, berdintasuneko batzordeak...).
- Eta mailakatua.

Kredituen edo puntuen (merituak) bidez aitortzeko aukera proposatu dute, lanpostuz igotzeari begira (aurrez aipatu dugu).

Prestakuntza horien helburu gisa honako hauek adierazi dituzte:

- Kontzientzia sortzea eta eraldatzea (bereziki azpimarratuta indarkeriak ez direla emakumeen arazo bat, eta beraz, espezifikoki gizonengana ere zuzenduta).
- Eraso sexistak identifikatzea norberaren esperientzian.
- Indarkeria egoera baten aurrean jarraitu beharreko urratsak ezagutzea.

Nabarmendu beharreko alderdi garrantzitsu bat irakasleek honako hauek betetzeko gaitasuna edukitzeko premiari buruzkoa da:

- Ez edukitzea bazterkeriazko jarrerarik, ez jarrera sexistarik.
- Ikasgelaren esparruan jarrerak eta portaerak identifikatzen jakitea.

Parte-hartzaileek nabarmendu dute ezinbestekoa dela gizonengan ere kontzientzia sortzea

eta haiek feminismoan, aukera berdintasunean, indarkeria matxistetan, maskulinitate berrietan eta halakoetan prestatzea.

“Agian gehiegi eskatzea da, baina zoragarria litzateke gai horiei buruzko eskolak egotea, beste irakasgai batzuk baino garrantzitsuagoak iruditzen baitzaizkit. Bereziki beharrezkotzat jotzen ditut osasun zientzietako karreretan”.

Entzute taldeetan adierazi dute gai horiek ikasgelan jorratu beharko liratekeela, nahitaezko edukien zati gisa. Indarkeria matxisten gaiari loturiko beste gai batzuk ere proposatu dira: sexualitatea eta sexu indarkeria, homofobia, neuroaniztasuna, transgeneroa eta transexualitatea, eta beste batzuk. Egoera horiek bizi dituzten pertsonak izan beharko lukete prestakuntza esperientzien protagonistak.

7.5.3.- Pertsonen arreta

“Unibertsitatean seguru sentitzeko aukera, biktima babesteko jarrera osoa, bai ikasleen, bai irakasle eta zuzendaritzaren aldetik.”

Entzute taldeetan parte hartu duten pertsona guztien iritziz garrantzitsua da indarkeria matxistaren biktima izan diren pertsonen babesa eta laguntza eskaintzea haiek unibertsitateari beren esperientziaren berri eman ostean.

Sindikatuak, ikasle batzordeak eta unibertsitateko beste elkarteak biktima izan diren pertsonen prozesuan laguntzeko gaitasuna izan dezaten proposatzen dute, eta indarkeria matxistak lehentasunezko gai bilakatzea.

Laguntze horrek esan nahi du pertsonak senti dezala unibertsitateak babestu egiten duela erakunde gisa, bai kasuak artatzen dituzten erreferentziazko pertsonen aldetik, baina baita irakasleen, ikaskideen eta, azken batean, unibertsitatea osatzen dutenen aldetik ere.

Adierazi dugun moduan, parte hartzaileak azpimarratu dute garrantzitsua dela anonimotasuna eta segurtasuna bermatzea, eta laguntze lana “espazio abegitsuetan” egin dadila, hau da, “konfiantza ematen duten espazio enpatikoetan”.

Horretaz gain, kasu horietako jardun ereduak bete beharko lituzkeen honako ezaugarri hauek ere azpimarratu dituzte:

- Denborak arintzea salaketa egon den kasuetan: horrekin erreferentzia egiten diote protokoloan jasotako bitartekoak eta mekanismoak modu arduratsuan abiarazteari. Baita dagokion diziplinazko neurriak eta neurri administratiboak ere.
- Prozesu osoan zehar laguntzea biktimak, berbiktimizazioa saihestuta eta hala erabakiz gero, kasua salatu ahalko duela ziurtatuta.
- Erasoa eragin duen pertsonak terapia jasotzeko aukera aintzat hartzea.
- Laguntza espezializatu eta profesionala, non pertsona arduradunek gaiari buruzko

eta kasu horietan eman beharreko laguntzari buruzko prestakuntza espezifikoa izango duten.

Entzute taldeetan garrantzitsutzat jotzen dute unibertsitateak kasu bakoitzari buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzea. Indarkeria matxistetan espezializaturiko terapia psikologikoa eta laguntza juridikoa jasotzeko aukera egotea. Horretaz gain, segurtasun neurri konkretuak ezartzeko premia ere aipatu dute, baita erasotzailea zaintzapean jartzekoa ere, eta ez indarkeria jasan duen pertsona.

7.5.4.- Protokoloan txertatzeko proposaturiko zerbitzuak.

Protokoloa lantzeko proiektuan parte hartzeko lantalde mistoa (ikasleek, irakasleek eta AZPko langileek osatua) osatzea proposatu dute parte hartzaileek.

Kasuak artatzeko zerbitzua: bazterkeria eta eraso matxisten kasuak artatzeko espazio bat.

Lankidetzarako eta unibertsitatean indarkeria matxistei nola aurre egin erabakitzeko espazio bat. Leku seguru bat, non pertsonak konfidentzialtasunez eta hurbileko eta konfiantzazko giro batean artatuko diren.

Unibertsitateko pertsona guztientzat erreferentziazkoa izango den zerbitzu bat, segurtasuneko langileak ere izan ahalko dituen.

Zenbait pertsonak aipatu dute pertsonak artatzeko espazio horrek ez duela mistoa izan behar, eta indarkeria matxisten arazoarekin loturiko prestakuntza duten emakume profesionalak arduratu behar dutela harrera egiteaz.

“Bulegoak honako hauek egiteko beharrezko baliabide fisikoak eta langileak izango ditu: prestakuntza ikastaroak, balorazioak, segimendua, eta abar. Unibertsitateko zerbitzu juridikoekin harremanetan egongo da, eta elkarrekin, jarduteko araudi bat eta protokolo bat gauzatuko dute. Bulego hori Errektoregoaren mende egongo da zuzenean”.

Bestelako proposamenak:

1. Foroa: bazterkeriari eta eraso sexistei buruzko salaketak jasotzeko. Anonimoa.
2. Postontzia: Berdintasunerako Batzordeentzako iradokizunak uzteko. Ikusgarri eta irisgarri egongo da.
3. Laguntza psikologikoa emateko berariazko baliabidea: unibertsitate barruan zein kanpoan gertaturiko indarkeria egoera konkretuen biktima izandako ikasleak eta profesionalak artatzeko. Konfiantzazko leku bat, hurbila eta segurua. Anonimotasuna bermatuko duena eta erraz aurkitzeko moduan egongo dena. Laguntza psikologikoa eskainiko duena, “unibertsitateko genero indarkeriaren arloan espezializaturiko laguntza” eta “kabinete psikologiko-juridikoa ezartzea fakultate guztietan”.

4. Kabinete juridikoa: zeinetan salaketa jartzeko aukera izango den, biktimak hala erabakiz gero. Zeinetan salaketari, horrek berekin dakarrenari eta eman beharreko urratsei buruzko informazioa emango den.
5. Biktima izan diren pertsonen taldea: *"Unibertsitatekoak izango dira, eta ez bakarrik indarkeria unibertsitatean jasan duten biktimak". Aintzat hartuta ikasle asko kanpokoak direla*".
6. Autolaguntzako taldeak eraso matxistak jasan dituzten emakumeekin. *"Ikastegiak espazio ofizial bat eskaini dezala eta terapeuten laguntzaz kudeatu ahal izatea, ondo zehaztutako ordutegiarekin"*.
7. Gako puntuak edo puntu lilak: leku fisiko ezagun eta irisgarri batean kokatuta, unibertsitateko kideek hara jo dezaten. Horiei buruz informazioa eskainiko da unibertsitatara iristen garen unean.
8. Telefono zerbitzu anonimoa: *"Telefono zenbaki bat biktimek hara deitu ahal izateko ez badute leku fisiko batera joan nahi izua eragiten dielako". "Edozer larrialditarako telefono zenbaki bat eskaintzea"*.
9. Atal bat Gaur-en edo e-gelan, gaiari buruzko ohiko galderekin.
10. WEBGUNEAK: *"Unibertsitateko webgunea hobetzea, baita bilaketa barrakoa ere, edo protokoloari buruzko informazioa ikusgarri jartzea". "Atal bat sortzea ikastegiko webgunean edozer gertaera matxista e-posta bidez jakinarazteko"*.
11. "Helbide elektroniko bat (anonimoa, nahi izanez gero), arazoak bidali eta konponbideak jaso ahal izateko".
12. Twitter kontu bat.
13. Segurtasuna unibertsitatean, halako kasuetarako. Adierazi dute, zehazkiago, segurtasun baliabidea erasotzailean zentra dadila, eta ez alderantziz.
14. "Zalantzak edo galderak jartzeko ohola. Erantzuna e-postaz jasotzeko aukerarekin".
15. "Unibertsitateak zuzeneko plataforma bat eduki dezala salaketak egiteko, hitz egiteko eta edozer mugimendu babesteko". *"Indarkeria matxistak salatzeneko plataforma eskura, informazioa"*.
16. Laguntzaileak esleitzea: *Norbaitek laguntzaile bat esleitzea eta ez bakarrik egotea*.
17. Zona ez seguruen mapa bat egitea eta publikoki erakustea.
18. Honako hauen sorkuntza babestea: talde feministak, LGTB taldeak, arrazismoaren aurkakoak, ikasle elkarteak indarkeriak jasaten dituzten pertsonak babesteko, bestelakoak. *"Laguntza eta babesa emango duten ikasle elkarteak sortzea"*.
19. Diziplina anitzeko taldea: espezialistak indarkeria matxistatan.
20. Indarkeria matxista kasuetan jarraitu beharreko prozedurei buruzko gidak.
21. Unibertsitateko festetarako protokoloa eta araudi espezifikoak.

Horretaz gain, zerbitzu horiek fakultate guztietan eskuratzeko aukera eskatzen dute,



bereizketarik egin gabe. Arreta eskaintzen duten pertsonak enpatia erakutsiko duten zerbitzuak, entzungo gaituzten eta informazioa emango diguten leku bat, indarkeria egoerari aurre egiteko zer aukera eta modu ditugun jakinaraziko digutena.

7.5.5.- Giza baliabideak: erreferentziazko pertsonak.

"Legeak ondo daude, baina arazoak dituela sentitzen duen pertsona batentzat garrantzitsuena laguntzeko prest dauden beste pertsona batzuk egotea da, zurrumbilo horretan orientazioa emango diotenak; burokraziak eta araudiek batzuetan laguntza baino traba gehiago egiten dute".

Biktimei lagunduko dieten eta gai administratiboei buruz eta eman beharreko urratsei buruz orientazioa eskainiko dieten konfiantzazko pertsonak eskura izatea AZPko langileen, irakasle-ikertzaileen eta ikasle taldeen kasuan agertzen den konstante bat da.

Parte hartzaileek balio handia ematen diote pertsona horiek indarkeria jasan dutenei emandako laguntza ibilbide luzekoa izateari. Pertsona horiek Berdintasunerako Zuzendaritzak esleitu ahalko ditu, eta campus guztian egongo dira presente. Baita jarrera "neutroa" izango duten eta biktimari babesa emango dioten kanpoko pertsonak ere.

Hona hemen identifikatutako aukeretako batzuk:

- Ikasle bakoitzeko TUTORE bat karrera osorako (tutoreak ez baditu balio eta jarrera egokiak, kontrako eragina ere izan dezakeela hartu da aintzat).
- Gai jakin honetarako TUTOREAK, prestakuntza edukiko dutenak eta gaituta egongo direnak, ikasleentzat erreferente izanik.
- Ikasleen arteko tutoretza programa (aurretik dagoena sustatzea).
- Boluntarioak, bai ikasleak, bai AZPko langileak eta irakasle-ikertzaileak, gaitasuna izango dutenak eta nor diren identifikatzeko bereizgarri bat eramango dutenak. Pertsona horiek indarkeriei buruzko laguntza edo orientazioa behar dutenei entzuteko prest egongo dira (euskaraz mintzatzen diren profesionalek beren mahaietan duten karteltxoa jarri da adibide gisa; halako zerbait izango liteke).
- Indarkeriaren biktime diren pertsonen arretaren arloan espezializaturiko barneko langileak.
- Indarkeriaren biktime diren pertsonen arretaren arloan espezializaturiko kanpoko langileak.
- Diziplina anitzeko talde bat, kasuak aztertu eta haien segimendua egingo duena.

7.5.6.- Komunitate ikuspegia: zerbitzu sarearekiko lana, unibertsitatean diren baliabideen optimizazioa eta lankidetza estrategikoak.

Indarkeria matxisten arloan, parte hartu duten profesionalek funtsezko lan estrategia gisa ikusten dute sareko lana, baita unibertsitate barruko eta kanpoko zerbitzuen arteko



lankidetza ere.

Horregatik bota dituzte funtsezko lau ideia:

- Sare bat sortzea eragile guztiekin eta komunitateko baliabide sozialekin, arazo hori saihestu eta artatzeko.
- Koordinazio zubiak eraikitzea arazoak dituzten unibertsitateko kideek erabiltzen dituzten unibertsitateaz kanpoko elkarteekin.
- Koordinazio handiagoa Zuzendaritzaren eta ikastegien artean.
- Unibertsitatearen eta sindikatuen arteko lankidetza (egoerekin zuzeneko harremana duten ikasleak).

Taldeen garapenean zehar gaur egun unibertsitatean abian diren baina pertsona gehienek ezagutzen ez dituzten, eta horregatik, behar bezala erabiltzen ez diren zenbait zerbitzu identifikatu dira (adib.: arreta psikologikoa, Psikologia Aplikatuko Zerbitzua, PAZ). Horregatik adierazi da Unibertsitateak dituen baliabideen mapa egiteko aukera, indarkeria matxisten arretarako lankidetzak artikulatu ahal izateko. Baliabideak optimizatuta eta pertsona guztien zerbitzura jarrita.

Aurreko ataletan esan bezala, ikasleek balio handia ematen diote babes taldeak bultzatzeari; esaterako, ikasle elkarteak, talde feministak, ikasle sindikatuak edo ikasle batzordeak, LGTB taldeak, eta bestelakoak, ikasleek jasaten dituzten indarkeria kasuentzako sarrera atea izan daitezten. Talde horien prestakuntza sustatzea ere azpimarratu da, horretarako arazo jakin horri buruzko informazioa eta prestakuntza emanda, aldi berean haiengana jotzen duten pertsonak informatu eta orientatu ahal izan ditzaten.

7.5.7.- Salaketa publikoa

Parte hartzaileek prozesuaren hainbat etapatan azaldu dute unibertsitateak indarkeria matxisten gizarte arazoaren aurrean jarrera garbia eta bateratua izateko premia. Halaxe adierazi da lehenengo atalean (1. Unibertsitatea erakunde gisa).

Bigarrenik, parte hartzaileek adierazi dute indarkeria matxistek unibertsitatean duten prebalentziari eta eraginari buruzko gardentasuna, informazioa, eta datuak beharrezkoak direla.

Hirugarrenik, unibertsitateak hura osatzen duten taldeetan gerta daitezkeen indarkeria matxistak publikoki arbuiatzeko egiten diren adierazpenak babesteko beharra azaldu dute.

Unibertsitatearen barruan arazo horri gizarte ekintzatik helduko dion plataforma bat edo talde bat osatzeko ideia iradoki da:

- *“Indarkeria matxistak salatzeke plataforma bat edukitzea eskura, informazioa”.*
- *“Genero indarkeriaren kontrako talde bat sortu, horrela salatu nahi duzunean edo*

dudaren bat duzunean, badakizu norekin hitz egin edo nori kontsultatu”.

Azken batean, garrantzitsutzat jotzen da indarkeria matxisten gizarte arazoak bere tokia izatea unibertsitateko testuinguruaren espazio publikoan.

7.6.- Hedapena

“Izugarri gustatu zait ekitaldi hau, funtsezkoa iruditzen zait ikasleen ahotsa aintzat hartzea, baina hamar minutu lehenago jakin dut horren berri, eskola hasi baino lehen informatzera etorri zaizkigulako. Nolabaiteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko ligukete guztioi”.

Hedapena funtsezko elementua izan da ikasleekin, AZPko langileekin eta irakasle-ikertzaileekin bi hilabetez gauzaturiko parte hartze prozesu osoan.

Lehenengo taldetik egiaztatu da unibertsitateak egun erabiltzen dituen komunikazio eta hedapen bideek ez dutela bermatzen ikasleek funtzionamendu orokorra ezagutzeko beharrezko informazioa izango dutela unibertsitatearen. Errealitate hori profesionalen kasuan ere gertatzen da, baina ez hain nabarmen.

“Unibertsitatearen funtzionamendua azaltzea eta argitzea zer gaitasun duen sail bakoitzak: Errektoretza, Dekanotza”.

Ikasleen kasuan zein profesionalen kasuan gogoeta eta eztabaida egin dute, unibertsitateari erreklamatu diote, eta komunikazioa hobetzeko ideiak eman dituzte, pertsona guztiek eskura izan dezaten beren premiak asetzeko aukera emango dien informazio guztia.

Ikasleek adierazi dute ez dituztela unibertsitateko sailak eta zerbitzuak ezagutzen, ezta ikasle elkarteak ere. Esan dutenez ez zekiten aurretik ere genero indarkeriari aurre egiteko protokolo bat zegoenik, eta ez zituzten ezagutzen Berdintasunerako Zuzendaritzaren zereginak, ezta halakorik zegoenik ere.

“Karrera ikasten daramagun lau urteetan ez digute esan zer tresna dituen unibertsitateak jazarpenaren aurrean jarduteko”.

“Informazio gehiago ematea nahiko nuke, ez baitigute batere ematen. Unibertsitate barruan nora jo dezakedan jakin nahiko nuke...”.

Honako honi buruzko informazioa eman beharko litzatekeela diote:

- Berdintasunerako Zuzendaritza eta Berdintasun Batzordeak.
- Protokoloa, protokolo berria idazteko prozesua, eta haren edukiak (“Protokoloari buruzko informazio jardunaldia”).
- Gaur egun eskura ditugun baliabideak, hainbat premia eta arazo ditugunean hara jo ahal izateko.

- Indarkeria matxistekin eta, adibidez, LGTBrekin lotuta gauzatzen diren jarduerak edo dinamikak.

Horretarako hainbat proposamen egin dituzte (5.4.- Protokoloan txertatzeko proposaturiko zerbitzuak atalean adierazi dira); esaterako, nola hobetu unibertsitateko webgunea, atal jakin bat jartzea Gaur-en edo e-gelan, besteak beste. Adierazi beharra dago, esan dutenaren arabera, posta elektronikoa ez dela baleko bidea informazioaren zatirik handiena bidaltzeko.

Ikasleek ez dituzte irakurtzen unibertsitateak bidalitako mezuak, eta erantsi dute parte hartze prozesuan egoteko aukera baldintzatu duela horrek, helbide elektronikoa izan baita informazioa hedatzeko erabilitako tresna nagusia:

"Uste dut unibertsitateko mezu elektronikoak ez direla begiratzen, hurbilagoko bitartekoak erabili beharko lirateke".

"Mezu elektronikoak bisualak izan daitezela, eta, batez ere, unibertsitateko kide garen aldetik zuzenean eragiten diguten gai horietan". Bidali, bidaltzen dira, baina ez dira bisualak. Unibertsitateko webgunea nola erabili hobeto azaldu beharko ligukete, ez baikara gauza askotaz ohartzen edo ez dugu jakiten non bilatu informazioa; esaterako, gatazka egoeretan zer zerbitzutara jo".

Parte hartu duten ikasleek irakasleei begiratzen diete informazioa jasotzeko garaian. Haien ustez irakasleek eman beharko liekete indarkeria matxistekin eta interes orokorreko beste gai batzuekin loturiko zerbitzuen eta jardueren berri.

Azkenik, berriz azpimarratu nahi dugu, bai irakasleek, bai ikasleek, ezinbestekotzat jotzen dutela unibertsitateari buruzko informazioa jasotzea, honako hauek barne: funtzionamendua, sailak, eginkizunak eta zerbitzuak, eta ikaslea unibertsitatean sartzen den unean eta bertako langileak lanpostuan hasten diren unean egiten zaien harrera.

8. Ondorioak eta aholkuak

Indarkeria matxista egungo gizarteak bizi duen arazo larria da, eta horregatik, eragina du unibertsitatean, han ere bai baitago indarkeria matxista. Hezkuntzak gai horrekiko duen zeregina eztaba daezina da, baina gainera, unibertsitateak, erakunde gisa, bere eskura dituen baliabideak jarri behar ditu indarkeria horrek bere ingurunean hartzen dituen formen aurrean behar bezala sentsibilizatzeko, saihesteko, ekiteko eta esku hartzeko, eta unibertsitatea osatzen duten pertsona eta estamentuen artean berdintasunezko harremanak eta tratua onak sustatzeko, eta indarkeria bizitzen ari diren pertsonen laguntzeko.

Unibertsitatea osatzen duten pertsonen dituzten premiei erantzuneko dien protokolo bat ezartzeari begira, ezinbestekoa zen lehenik eta behin bertan bizi, ikasi eta lan egiten dutenei galdetzea. Horregatik, entzuteko eta parte hartzeko fase hau gauzatzea ezinbestekoa izan da pertsona horien errealitateetara hurbiltzen saiatzeko, eta haien iritzia, zalantzak, eztabaidak eta ideiak zabaltzeko.

Parte hartze ekintza hau ezartzea ez da, hortaz, kasualitatea izan; atzean bazen interesa prozesua irekitzeko eta etorkizuneko protokoloaren eta unibertsitatearen interesgune izango direnak aintzat hartzeko: ikasleak eta profesionalak. Nolanahi ere, zailtasunak izan dira parte hartze maila handietara iristeko.

Alde batetik, ikasleek saioetan sistematikoki aipatu dituzten **komunikazio eta informazio zailtasunak** nabarmendu nahi ditugu. Hala, entzute fasea hedatzeko kartel bat egin, saioak UPV/EHUren fakultate guztien parte hartze orekatua eta hiru campusetan egiteko beharra aintzat hartuta antolatu, eta Berdintasunerako Zuzendaritzak unibertsitateko ikastegi guztietako arduradunei eskutitz bat idatzi, eta unibertsitateko kide guztiei helbide elektronikoetara entzute saioetan parte hartzeko gonbidapen bat bidali arren, ezin dezakegu esan parte hartzea oso zabala izan denik, UPV/EHU osatzen duten pertsonen kopuruari erreparatuta. Unibertsitatea, erakunde gisa, pertsonen izan ditzaketen arazoetatik urrundutako entitatea da ikasleentzat, eta bere informazio eta hedapen kanalek ez dirudite hurbilekoegiak.

Hori hobetzeko puntu gisa hartuta, esan genezake **poztasun maila handia dela saioetan parte hartu dutenek egin duten lanari eta haien inplikazioari begira**, ideiak eman baitituzte, elkarriketarako gaitasunarekin eta errespetuz eztabaidatu dute, borondatea erakutsi dute, eta beren laneko edo ikasketetako agendetan tarte bat gorde dute prozesuari ekarpenak egin ahal izateko. Gure eskerrik beroena parte hartu duten pertsona guztiei eta informazio eske harremanetan jarri direnei, protokolo bat ezin baita egin pertsonen zuzendu gabe eta haiek aintzat hartu eta haiekin lan egin gabe.

Entzute fasea abian jarri genuenean ez genuen alde aurreko informaziorik esango zigunik zenbat jendeak parte hartuko zuen gutxi gorabehera. Esperientziaren arabera, esan genezake hainbat aldagaik izan dutela eragina zenbait saiotan ikusi den parte hartze handiagoan edo



beste batzuek izan duten arrakasta txikiagoan. Esperientzia honek asko irakatsi digu informazioa **helarazteko eta unibertsitatea gardenago egiteko lanean hobetzen jarraitzeko**, eta aintzat hartu beharreko zenbait ideia utzi dizkigu prozesu parte hartzaileago eta integratzaileagoak egiterakoan aurrerapausoak eman ahal izateko.

Ikasleekiko komunikazio eta informazio bideak hobetzea, prozesuei baliabideak eta denborak esleitzea, hedatzen eta antolatzen laguntzen duten inplikaziodun pertsonak izatea, Berdintasunerako Zuzendaritzaren berri ematea, pertsonen arreta eskaintzeko prest dagoen hurbileko zuzendaritza gisa; horiek dira ikasi ditugun planteamenduetako batzuk.

UPV/EHU indarkeria matxistei buruz egin den lehenengo prozesu parte hartzailea izan arren, eta haren tamaina aurreikusteko aukera emango zigun informazioa falta izan zaigun arren, **erabilitako metodologiak** –lantaldeak eta egoerei buruz eztabaida eta protokoloan txertatzeko ideien bilaketa–, **emaitza onak izan ditu**. Hala, saioetan parte hartu duten pertsonen arazoari buruz dituzten sentimenduak eta sententziak adierazi ahal izan dituzte, hainbat indarkeria motarekin aurkitu dira, eta haiek bereizten eta kontzeptualizatzen ikasi dute, indarkeria egoera horiei nola aurre egingo lioketen pentsatu ahal izan dute, eta horrekin, unibertsitateak eskaini beharreko laguntza, arreta eta prebentzio prozesua hobetu ahal izateko aintzat hartu beharreko hainbat ideari buruz hausnartu dute.

Eginiko saioen **erantzunak jasotzerakoan gehien harritu gaituen gauzetako bat indarkeria egoerak norberaren kontura konpontzeko joera nagusi dela** jakitea izan da. Jakin dugu pertsona batzuek aintzat hartzen dutela unibertsitatea indarkeria egoera batengatik kezak edo salaketak jartzeko aukera ematen duen espazio gisa, baldin eta egoera unibertsitate ingurunean gertatzen bada (irakasle batek eragina, eskoletan, goragoko mailako pertsona batek eragina...); baita badirela irakasleak gertuko gisa ikusten direnak eta ikasleek haiengana joko luketela arazorik balute ingurune horretan; gainera, jasotakoaren arabera, gelako taldea babes espazio gisa ikusten dute ikasleek aldarrikapen kolektiboak egiteko garaian, eta indarkerien gizarte salaketa gero eta ohikoagoa da, aintzat hartuta sare sozialek eta elkartegintza mugimenduak egoera horiek isilpean ez geratzeko eskaintzen dituzten aukerak.

Nolanahi ere, eta aukera horiek gorabehera, indarkeriazko egoera bat bizitzeko aukeraren aurrean ikasleek zein unibertsitateko langileek ematen duten lehenengo erantzuna beren kabuz konpontzearena da: isiltzea, saihesten saiatzea, zuzenean aurre egitea, egoera horretatik irteten direnean kontatzea, amorrua sentitzea... Bestalde, pertsonen unibertsitateko ingurunetik kanpo jasan ditzaketen egoerak (bikote harreman batean, pisukideekin, festa giroan...) ez dira UPV/EHUren eskumeneko arazotzat jotzen, horregatik ez da egoeraren berri ematen ingurune horretan, eta **ezjakintasuna dago eskuragarri dauden laguntza edo aholkularitza zerbitzuen inguruan**.

Unibertsitateak aintzat hartu behar du aurrekoa egoera horiek benetan konpondu eta

egoera horretan daudenei benetan lagunduko dien tresna gisa ikusiko den protokolo bat egin ahal izateko; ikasle guztiek eta unibertsitatean lan egiten dutenek ezagutuko duten eta ulertuko duten tresna bat, unibertsitatearen eta bertan bizi diren pertsonen artean harreman egoki, inplikatu eta lankidetzakoa ezartzen lagunduko duena.

Bestalde, entzute prozesuak **ideiak sortzen lagundu du**, zalantzarik gabe, eta behar duten pertsonengandik hurbilago egongo den protokolo bat ezartzeko aintzat hartu beharreko **hainbat proposamen zehatz ekarri ditu**.

Hona hemen parte hartu duten pertsonen unibertsitateari eginiko hainbat iradokizun: **protokolo bakar bat ezartzea hainbat indarkeriatarako**, zerbitzuak martxan jartzeko eta profesionalentzako gaikuntza ahalbidetzeko beharrezko bitartekoetan inbertitzea, eta alderdi guztietatik inplikatzeko, elkarrizketa eta lankidetzako harremanak ezarrita ikasleekin, indarkeria matxistaren biktimak babestuta, ekinda, eta portaera eta jarrera matxistak zigortuta.

Iradokizunen artean nabarmentzekoa da, halaber, **informazio eta gardentasun eskaera**; parte hartzaileek jakin nahi dute zer gertatzen den indarkeria kasuekin, zenbat dauden, eta aldizka txostenak egin eta argitara daitezela, unibertsitateko kideek entzun dezaten eta jakin dezaten, eta ez daitezen bihozgabeak izan gertatzen ari denaren aurrean.

Parte hartzaileek garrantzia eman diote, bestalde, **Berdintasunerako Zuzendaritzari**, esanez hark izan behar duela erreferentzia esku artean dugun gai honetan. Zuzendaritzaren bulegoak irisgarriak izan daitezen proposatu dute, eta ikastegi eta fakultate guztietan eraginkortasunez lan egingo duten Berdintasun Batzordeak egotea nahitaez.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko, **hizkera inklusibo EZ sexista erabiltzeko** eta curriculum akademikoan genero ikuspegia zeharka txertatzeko hainbat proposamen jaso dira. Horretaz gain, honako ideia hauek behin eta berriz agertu dira saioetan: emakumeei ez ezik, gizonei zuzenduriko berdintasuneko funtsezko dinamikak planteatzeko eta emakumea/gizona binarismoa hautsiko duen komunikazioa sustatzea, unibertsitateak biltzen duen aniztasunari ateak ireki eta hura ikusgarri egingo duena.

Indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloari dagokionez, entzute fasean parte hartu duten pertsonen ebaluatu daitekeen eta giza faktorearen mende egongo ez den tresna bat ezartzearekin loturiko hainbat ideia adierazi dituzte; pertsonen segurtasuna eta anonimotasuna bermatuko dituen, baita ondorioak egotea ere abusua edo indarkeria gauzatzen dutenentzat, eta unibertsitateira iristen direnei harrera egiteko lehenengo unean oinarritzeko informazioa ematea guztiei, nola jokatu eta nora jo jakin dezaten.

Beste ideia batzuen artean honako hauekin loturikoak ere jaso dira: **sentsibilizazioa eta prebentzioa, prestakuntza, pertsonen eskaini beharreko arretak nolakoa behar duen izan, protokoloan sar daitezkeen zerbitzuen proposamena**.

Giza baliabideak eta konfiantzazko eta erreferentziazko pertsonak, lanerako estrategiak ezartzea eta dauden zerbitzuen sarearekin lankidetzan aritzea. Unibertsitateak indarkeria gaitzesteko adierazpen publikoak babestea, eta informazioa eta hedapen hobe ahalbidetzea eta bermatzea (bai unibertsitatearen funtzionamenduarekin loturikoa, bai sail bakoitzaren zereginekin loturikoa, baita dauden zerbitzuak edo webgunea hobetzea ere). Horiek guztiak dira eztabaida honetan aurki daitezkeen eskaerak.

Ondorio gisa, **entzute prozesuak aukera eman du erakundearen eta huraosatzen duten pertsonen artean komunikazio bide bat irekitzeko**. Pertsona horiek –ikasleak, irakasleak eta unibertsitateko langileak– hitz egin ostean, hurrengo urratsa txosten hau idazterakoan elkarriketa ez amaitutzat ematea litzateke, hari eustea, eta prozesuan parte hartu duten pertsonen segimenduaren eta jarraian garatu nahi den guztiaren berri ematea.

Iradokizun gisa, entzute esperientzia honetatik ondorioztatu ditzakegun batzuk eskainiko ditugu:

Hedapenari dagokionez:

- EHUko posta elektronikoa erabiltzeaz gain ikasleei informazioa helarazteko bide berriak sortzea, hura behar bezala jasoko dutela bermatzeko.
- UPV/EHUko kolektiboen arteko komunikazioa hobetzea, eta pertsonen hurbilagoko harremanak izan ditzaten bultzatzea.
- Entzute prozesuan parte hartu duten eta informazioa jaso nahi dutela adierazi duten pertsona guztiak aintzat hartzea jasotako informazioa itzultzeko, parte hartzea eta interesa eskertzeko, eta ondorengo hedapen estrategietan parte har dezaten sustatzeko.
- Entzute fase honetan bildutako informazioaren aurrez aurreko itzulketak bat egitea, gutxienez campus bakoitzean, aintzat hartuta atzerarik gabeko entzutea ez dela egiazko entzutea.

Metodologiari dagokionez:

- Unibertsitatean parte hartze kultura areagotzeko aukera emango duten prozesuak sustatzen jarraitzea.
- Orain arte parte hartu ezin izan dutenei parte hartzeko aukera emango dieten tresnak lantzea, bai galdetegi birtualen bidez, bai Berdintasunerako Zuzendaritzarekin hitz egiteko aukerari eutsita.
- UPV/EHUko indarkeria matxistaren diagnostiko bat egin dadin sustatzea; horren bitartez sakonago ezagutzeko unibertsitateko kideek jasaten dituzten indarkeriak, haien aurrean pertsonak ezartzen dituzten aurre egiteko estrategiak, eta laguntza eta babes bideak.

Protokoloaren lanketarekin lotuta:



- Prozesu honetan parte hartu duten pertsonen errealitatea ahalik eta gehien hurbiltzea protokolo batean eman daitezkeen galdera erduetara. Aintzat hartzea ahal den neurrian egingarriak diren ekarpenak eta iradokizunak.